



ARGIA

***“Txapelketa
pertsonak
erretzeko
makina da”***

Oihana Bartra
Bertsolaria

18-22. orrialdeak

#2.923 | 2025/06/29 | 4 €



**Turismo kolonialaren
kontrako erritmoa
Puerto Ricotik dator**

14 | NET HURBIL



**Zer diote akademikoek
EAEko energia
berriztagarrien planaz?**

28 | GORBEIALDEKO
HERRI UNIBERTSITATEA



**30 urte espetxean
eman dituen
poeta kurdua**

48 | MIZGIN RONAK

ARGIA.eus/podcast

BERANDUEGI

  Bi ostiralean behin **argia.eus**-en

DENA EZ DAKIGU,
BAINA
EZ GABILTZA
URRUTI



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: EIDER ITURRIAGA / ARGIA CC BY-SA

Iritziak

- 23 | ASIER BLAS
- 24 | MALORES ETXEBERRIA
- 25 | ITZIAR MORENO
- 25 | CASTILLO SUÁREZ
- 26 | ZIGOR ETXEBURUA

Finkoak

- 38 | GORPUTZ HOTSAK
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 46 | DENBORA-PASAK
- 47-52 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



DOSPORDOS / ARGIA CC BY-SA

34 | EUSKAL HERRIAN LANTEGIAK DITUEN ENPRESAREN AURKAKO BORROKA KOLONBIAN

Marylen Serna aktibista elkarrizketatu du Ruben Sánchezek. Enbalajerako kartoigintzan mundu mailako handiena den Smurfit Westrock transnazionalaren aurkako borroka daramate 1.200 familiak Cauca departamenduan. Zuhaitzak ebakitzen eta lurra bereskurutzen dabiltza, burujabetza helburu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Ey, ey... Turismo kolonialaren bonba lehertu duela Bad Bunnyk

Urko Apaolaza

18 | PERTSONAIA | OIHANA BARTRA

“Bertsolaritzan ere badago aurrerapenaren kontra dagoen korrante erreakzionarioa”

Onintza Enbeita

28 | INGURUMENA |

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Analisi bat lurra esku pribatuetan ez uztearen alde

Jone Gartzia

48 | KULTURA | MIZGIN RONAK

“Turkierak hautsi zuen nire pertsona”

Maddi Sarasua

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizaguirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Fernández,
Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

Aztarna ekologikoa:



bDAP202506489


OLATUKOOP


Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.

Isolamendua

Israelek aldebakarez eraso egin dio Irani eta 950 pertsona baino gehiago hil ditu, horietatik %90 zibilak. Nazioartean atxilotzeko agindua duen Benjamin Netanyahu gerra-kriminalak dio "eraso prebentiboa" izan dela, bere inguruan inork ez dezan eduki berak aspaldian daukana: bonba atomikoa. Nazioarteko lege oro urratu duen eraso hauen inguruan, Ursula Von der Leyenek esan du Israelek "bere burua defendatzeko eskubidea" duela. Iranek ehunka misilekin erantzun du eta sionisten aire-defentsa sistema "garaiezina" gaititu dute. Eta hala, "hautatutako herria" bere baitan isolatu da, asmatu-rik jainko bati otoitz eginez, existitzen ez den mehatxu bati aurre egiteko.

 Judu bat jerusalemgo bunker batean, ekainaren 14ko bonbardaketetan. **MAYA A. / AP**

 **AXIER LOPEZ**







AEBak zuzenean sartu dira Iranen aurkako gerran

 ENEKO IMAZ GALPARSORO

Irango hiru gune nuklear nagusiei eraso egin ostean, Donald Trump AEBetako presidentek "Iran berriz handi egiteko" erregimen aldaketa bat behar dela adierazi du sare sozialetan. NBERen Segurtasun Kontseiluak larrialdizko bilera egin du, eta Errusiak, Txinak eta Pakistanek su-eten akordio bat "berehala" adostea eskatu diete bi aldeei. Ormuzko itsasartea blokeatzearen alde egin du Irango Parlamentuak, bertatik igarotzen da munduko petrolio garraioaren %20 inguru.

Ekainaren 22 goizaldean Fordowr, Natanz eta Isfahan gune nuklearrei eginiko erasoarekin, AEBak zuzenean sartu dira Israelek bere babesarekin piztutako Iranen aurkako gerran, eta guztiz aldatu dute gatazka. Badirudi bi aldeek ez dutela epe laburrean elkarren aurkako erasoak gelditzeko asmorik. Israelek Irani lehen aldiz eraso egin zion unetik aukera hori ukatu egin badu ere, Donald Trump AEBetako presidentek adierazi du Teheranen "erregimen aldaketa" behar dela.

AEBek eta Israelek aipatu dute euren helburua Teheranek ordezkatzeko duen "mehatxu nuklearra" deuseztatzea dela: euren arabera, Iran arma nuklearra garatzen ari da uranioa aberasteko teknologiaren bitartez, IAEA Energia Atomikoaren Nazioarteko

Agentziak hori baieztatu ez duen arren. Irango hiru gune nuklear nagusien aurkako erasoaren ondoren, AEBetako presidenteordeak aitortu du ez dakitela Iranek non pilatzen duen uranioa: "Hori izango da datozen asteetan euren hitz egingo dugun gaitako bat".

Larrialdi bilera egin dute Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseilua osatzen duten herrialdeek. Besteak beste, Txinak, Errusiak eta Pakistanek AEBek eginiko erasoak salatu dute, eta bi aldeei su-eten akordio batera "berehala" iristea exijitu diete.

ORMAZKO ITSASARTEA

Iranen aurkako erasoaldiak hartu duen dimentsioarekin, herrialdeak gerrarako arma gisa baliatu lezakeen baliabide bat geroz eta gehiago aipatzen ari da astekari hau ixteko unea: Ormuzko itsasartea blokeatzea. Itsasarteak garrantzi handia du nazioarteko merkaturan, eta, bereziki, energiaren: itsasotik garraiatzen den munduko petrolioaren eta gas natural likidotuaren %20 eta %30 artean bertatik igarotzen da, esaterako, Indiak eta Txinak inportatzen dutena eta Europako herrialdeek Katarren bidez jasotzen dutena. Itsasartearen bi aldeetan dauden herrialdeak Oman, Arabiar Emirerri Batuak eta Iran dira. ●

MOTZEAN

Beskoitzen ikastola eraikitzeko lursaila eskuratu du Seaskak. 2014tik prefabrikatu batean, urtetako gatazka gogorra izan da ikastolaren eta Beskoitzeko Herriko Etxearen artean, eta ikastola eraiki ahal izateko 2.500 metro koadroko lursaila lortu dute azkenean.

17 urteko neska bat elektrokutatuta hil da Araiko tren geltokian. Geldirik zegoen bagoi baten sabaira igo eta han elektrokutatu da. Berarekin zegoen 16 urteko neska zauritu egin da.

Beste familia bat etxegabetu dute Iruñeko Alde Zaharreko Jarauta kalean: ekainaren 20an, emakume bat eta bere semea etxegabetu ditu epaitegiko segizio judizialak, Espainiako Poliziaren laguntzarekin.

Ekologistak Martxanek Bandera Beltzak 2025 txostena atera du, kutsadurari lotuta. Hego Euskal Herriko kostaldean, Bilboko superportuari eta Getariako arrain haztegiari eman dizkio bandera beltz nagusiak.

120 "ongi etorri" baino gehiago antolatzea eta terrorismoa goratzea leporatzen zien Espainiako Auzitegi Nazionalak sei laguni. Akordioa lortuta, ez dira kartzelara joango.

MELOI SALTZAILEA

Persepolis



JUNE FERNANDEZ

Irango hiru gune nuklearrei eraso diete AEBek pasa den asteburuan. Donald Trump eta aiatolaren arteko pultsuan eta Netanyahuaren rolean zentratu dira hedabideak albistea ematerakoan, ez ordea bertoko zein diasporako herritarren larritasunean: Teheranetik ihes egiteko bultzakada, komunikazioen etena, aire-espazioaren itxiera...

Onartu behar dut ezer gutxi dakidala Irani buruz, ez bada Marjane Satrapiren *Persepolis* komikian aspaldi irakurri nuena. Jakin badakit Irani gaizkilearen papera esleitu izanak eragina duela gure iruditeria kolektiboan. Deshumanizazioa baldin bada sarraskien aurreko onarpen soziala ahalbidetzeko baldintza (alegia, "besteen" sufrimendua normalizatzea, "haien" miseriak naturalizatzea), filmeko maltzuraren kasuan are eta errazagoa da justifikazio sinbolikoa.

"Iranen aberaste nuklearrerako gaitasuna suntsitzea, eta munduan terrorismoaren babesle nagusiak ordezkatzen duen estatuaren mehatxu nuklearra amaitzea" argudiatu ditu Trumpek; Irakeko berdintsuak. AEB eta Israelena ez baita estatu terrorismoa, defendatzeko eskubidea baizik.

Eskerrak Trumpek ez duela emakumeen liberazioaren karta baliatu, Afganistanekin George W. Bushen egin bezala, agian egungo AEBetako "erregimenaren" burua sexu erasoengatik zigortua izan delako.

Alabaina, Chaima Boukharsa Espainiako Estatu-ko *Afrocollectivx* hedabideko sustatzaileak argi dauka genero islamofobiaren gorakadak funtsezko papera bete duela Palestina eta Iranen kontrako ofentsiban. Hurrengo mezua argitaratu du, besteak beste: "Ahizpa, korri, Mendebaldeko inperialismoak berriro askatu nahi gaitu-eta".

Pasa den Martxoaren 8an islamofobiaren kontrako manifestu bat zabaldu zuten Espainiako zenbait feminista antiarrazistek, eskoletan hiyaba debekatzeko neurriak salatzeko. Azaldu zuten zapia deabrutzea (integrismo islamikoaren ikur gisa aurkeztuta, eta ez Europako askotariko emakumeen hautu identitario gisa) estrategia dela herritar musulmanak "balio antidemokratikoen eramaile" gisa aurkezteko eta, hala, "klase arriskutsu" bihurtzeko.

Gauzak horrela, premiazkoa dugu bonbardaketen justifikazio sinbolikoa ahalbidetzen duten diskurtsoak neutralizatzea eta bizitza iraniarrak inporta zaizkigula adieraztea. Are gehiago, diasporako gure bizilagunak aintzat hartzea, entzutea eta besarkatzea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



EKONOMIA

Ekaineko zurrumbilotik



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Kooperatibismo bat komunitateari begira topaketek, komunitatea ahaldundu eta lurraldeetako beharrei erantzuteko tresna direla gogorarazi ziguten. Halaxe da, bai, baina ekaina ez da kooperatibetan idealizazioarako garai egokiena, ez behintzat kooperatibetako kudeaketa organikoan aritzen garenontzako. Gai ordenak, deialdiak, auditoretzak, kudeaketa plana, emaitzen banaketa, aurrekontuak, bozketak, aktak, kontuen erregistroa, barne araudia, estatutuak... Hori da gure udaberria. Araudi zorrotzek buruhaus-tez betetzen gaituzten garaia.

Izango du zentzua legedian halako zorrotasuna ezartzeak, bereziki bermatzeko bazkideen arteko ekitatea eta bidezko prozedurak. Baina neure buruari galdetzen diot ea burokraziak eta formalismoak ez dien gure erakundeei malgutasun txikiegia ematen oinarriko elementuei erreparatzeko: konpromisoa, erantzukidetasuna, inplikazioa, maitasuna, elkartasuna, zaintza. Eta, oinarrikoena: parte-hartzea.

Hain zuzen ere, kontsumoari lotutako kooperatiba integralek erronka garbi bat dute esparru honetan. Lan boluntariorik kooperatibak sortu ditugu bizi-tzarako oinarriko baliabideak eskuratzeko, tokiko begirada integralarekin edota zerbitzu konkretuei begira (energia, komunikazioa, elikadura...). Kasu askotan, zorionez, lortu dugu lanpostu kooperatiboak sortzea, baina horrek, zuzenean, bazkideen parte-hartze eta boluntariorik behera egitea eragin du.

Zer egin bazkideekin? Nola aktibatu? Zertarako? Erantzun praktiko eta pragmatikoak topatzea ez da erraza, utopiatik errealtatera jauzi izugarria baitago. Akaso, bazkidetza kontzeptuak eraldatu eta oinarri berbera duten proiektu kooperatiboak josi genitzake, militantiak gurutzatuz eta elkar elikatuz. Baina beno, gaurkoz nahiko, udazkenean helduko diogu gaiari, ekaineko batzar orokorrak ahanzten ditugunean! ●

ANALISIA



ITSAS SALBAMENTU HUMANITARIOA

Nekropolitikaren politika

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Oxala Mediterraneoko herrialdeek beren betebeharrak beteko balituzte, eta bilaketa eta erreskateko uretan eskura dauzkaten operatibo guztiak mar-txan jarriko balituzte, jendeak itsasoan arriskurik izan ez dezan". Mikel San Sebastian Aita Mari erreskate ontziko kidearen hitzak dira horiek, 2023an 2.815 astekarirako egindako erreportajetik ateratakoak. Denbora pasatu izanagatik ere, hitzok ez dute gaurkotasunik galdu, pasa den asteko titular batek gogorarazi duenez: 2025a hasi zenetik 1.800 pertsona baino gehiago hil dira Afrikatik Europa bidean, Ca-minando Fronteras elkarteak kaleratutako txostenaren arabera. Pertsona diogu, beste batzuek atzerritar edo etorkin diotenean.

Ezer erakutsi badu egungo egoerak da legeak berdin duela. Nazioarteko hitzarmenak daude, giza eskubideen adierazpenak eta estatu arteko akordioak eta guztiek diote giza eskubideak daudela ezereen aurretik, eta estatuak derri-gortuta daude baliabideak erreskate lanetara bideratzera. Baina gero dator errealtatea eta kontrakoa esaten du. Aipatu txostenak argi dio heriotza horiek saihestu zitezkeela; are, salatu du heriotza horien erdia inguru "erabaki politi-koen, kalkulaturako omisioen eta heriotza normalizatzen duen mugen arkitek-turaren" ondorio direla.

Egoera konplexua da, hor ez dago zalantzarik. Gero eta diskurtso gehiago entzuten dira, hain zuzen ere, errealtatean gauzatzen dena areagotzeko eskatzen dutenak. Alegia, gero eta gehiago entzun dira diskurtsoak, gizatasunaren izenean, mugak ixteko eta itsasoan interbentzioak eskatzen, bidean datozenak bueltaraz-teko. Horrelako erraza balitz bezala, jendeak itsasoa kapritxoz gurutzatuko balu bezala. Eta egia da Europa aspalditxotik dagoela katramilatuta afera horretan, bi aukera baino ez baititu parean: legea bete eta eskura duen laguntza guztia eskaini eta biziak salbatu; edo mugako polizia mezu argia helarazi, mugaren zirrikitu guztiak itxi eta itsasoa hilerri erraldoi bilakarazi. Eta argi dago zer erabaki duen.

Ez, kontua ez da horren sinplea eta ez dira bi aukera erraz eta egingarri neurri berean. Baina egoera ere ez da horrelakoa: 1.800 hildakotik 1.300 Mauritaniako bidea hartutakoak izan dira, eta agerikoa da eskualdea gerra eta gosete sakonean dagoela. Beraz, harrotuko dira haizeak eta jendeak esango du Euskal Herriak, Espainiako Estatuak, Europa osoak, ez duela gaitasunik heldutako migratzaileak "xurgatzeko". Baina, agian biziak salbatzea jokoan dagoenean, Europak konturatu beharko luke ezin duela bere bakea horren gainean sortu, eta biziak salbatu edo jendearen etorrera kudeatzearen artean, ez lukeela zalantzarik egin beharko. ●

17.543

lagunek bozkatu dute Iruñeko Sanferminetako txupinazoa nork jaurti, inoizko parte-hartzerik handiena. Yala Nafarroa izan da hautagai bozkatuena: Palestinaren askatasunaren aldeko eta genozidio eta okupazioaren kontrako Nafarroako plataforma.

2100

urtean herritarren %60 urak har ditzakeen eremuan biziko dira, Jaurlaritzaren azterketaren arabera. Bero boladak ohikoagoak eta luzeagoak dira, azken bi mendeetan 20 zentimetrotan igo da itsas maila eta EAEko batez besteko tenperatura 0,3 °C igo da hamarkada bakoitzean.

15

migratzaile bizi ziren kanpaleku bat hustu du Getxoko Udalak, Algortako Larrañazubi inguruan. Alkateak adierazi du han bizi ziren pertsonen "segurtasuna" bermatzeko eta "ingurune natural hori zaintzeko" desegin dutela.

"Bikotekidearen kontrola zaila da identifikatzen, sarri maitasun erromantikoarekin lotzen dutelako, maitasun seinaletzat dute"

MARIA DOSIL

Maria Dosil eta Uxue LLano EHuko ikertzaileek 12 eta 17 urte arteko 409 gazte galdekatu dituzte: gutxienez hamar nerabetik seik bikotekidea kontrolatu du mugikorraren edota sare sozialen bidez.

2025-06-17



"GUTXIENeko ZERBITZUAK IKUSITA, BADIRUDI LOREZAINENA FUNTSEZKO LANTZAT JOTZEN DELA; BAINA KOBRATZEKO ORDUAN EZ DA HAIN FUNTSEZKO"

ANDONI CASTRO VIVAS, ELA

Hiru hilabete bete berri dira Gasteizko lorezainek greba mugagabea hasi zutenetik.

ARGIA.EUS (2025-06-23)

"Prostituzioaren abolizioa txertatuko duten neurri sorta prestatzen ari gara"

ANA REDONDO

Espainiako Gobernuak Berdintasun ministroak iragarri du prostituzioa debekatzeko lege proposamena aurkeztuko duela berriro ere irailean.

2025-06-19



EAEko Kultura Sistemaren Legea, Espainiako eskuinaren esku?

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Legegintzaldi honetan kozinatuko da EAEko Kultura Sistemaren Legea. Hala egin asmo du Eusko Jaurlaritzak, eta laguntza-eskaera lizitaziora atera zuen iazko urtearen amaieran, sailak baitio “lan teknikoegia” dela berak ganoraz heltzeko.

EAEko Kontratazio Publikoen webgunean ikus daitekeenez, enpresa bakarra apuntatu zen lizitaziora: Estudio Jurídico Gabeiras y Asociados SLP. Hortaz, hari esleitu zaio legediaren aurre-lanketa, ia 80.000 euroren eta 700 orduko lanaren truke. Kontratazioan ageri denez, abenduaren 27rako aurkeztuko ditu enpresak proiektuaren zirriborroa eta memoria, eta Jaurlaritzak 2026an onartu nahiko luke EAEko Kultura Sistemaren Legea.

NOR DAGO ENPRESAREN ATZEAN?

Abokatu talde batek zuzentzen du Estudio Jurídico Gabeiras y Asociados SLP enpresa. 2004an sortua da eta Madrilen du egoitza. Patricia Gabeiras Vázquez da zuzendaria, baita enpresaren sortzailea eta bazkidea ere. Zuzenbidean aditua da, eta enpresaren buru izateaz aparte, Musika Festibalen Elkarteko (gaztelaniaz, FMA) zuzendaria ere bada.

FMAren helburua, elkarteak dioenez, musika festibalak “ekitaldi artistiko eta kultural gisa” nabarmentzea da. Hala beharko lukete izan berez, baina lehen puntuan hori azpimarratzeak badu zergatia: hainbatetan seinatu denez, musika atzeko planoan geratzen da makrofestibaletan, bestelako interes ekonomikoen mesedetan. Makrofestibalen eredua jo puntuan ipinita dago azken urteotan bereziki, hala nola modeloak berak musikariaren artean sortzen dituen arazoengatik, langileek izaten dituzten lan-baldintzengatik, edota publiko gisa joaten denarentzat, frogatu izan denez, antsietate iturri delako; neke fisikoa gehiegizkoa da eta deskantsurako orduak oso murriztak.

FMA elkarteko kide dira, besteak beste, ondoko festibal hauek: Arenal Sound, FIB, Sónar eta Euskal Herriko Last Tour enpresak antolatzen dituen BBK Live, Bime eta Azkena Rock, baita Israelen



Ibone Bengoetxea Kultura sailburua, Gasteizko Lehendakartzan.

EUSKO JAURLARITZA / IREKIA

apartheid-a babesten duen KKR inbertsio funtsak finantzaturiko Resurrection Fest eta ViñaRock ere –askoz ere gehiago dira, baina haiekin piztu da polemika–. Vox alderdiak babestutako Tsunami Xixón punk rock jaialdia ere FMAko kide da.

Jaurlaritzak Madrilgo enpresa bati esleitu dio Kultura Sistemaren Legea izango denaren oinarriak garatzeko ardura; enpresa horren buruak lotura du Espainiako eskuinarekin

PP-REKIN LOTURA

Sarean gehiago arakatuta, Patricia Gabeirasen izena bilatuta, PP alderdi politikoaren webgunean orri bat zabalik duela topa daiteke, nahiz orria hutsik egon. Horrek zerikusia izan dezake PPren ekitaldi batean parte hartu izanarekin, Borja Sémperrekin batera, hain zuzen ere 2023ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan atarian.

GABEIRAS FAMILIA

Hamaika ahizpa-neben artean gazteena

da Patricia Gabeiras Vázquez; horietako askok dituzte enpresak edo sozietateak irekita han eta hemen. Ama, María Rosa Vázquez, Espainiako Artxibategi Orokorrean lan egindakoa da; liburu bat idatzita dauka. Eta bere aita ez zen edonor izan: José Gabeiras Montero (Ferrol, Galizia, 1916 – Madril, 2005). Wikipedian ere ageri da, eta ez alferrik.

Frankisten bandoan aritu zela esatea motz geratzea da. Izan ere, militar sartu zen Espainiako Gerra Zibila hasi zen urte berean, artillerian ibili zen hainbat urtetan. Horrez gain, Bigarren Mundu Gerran boluntario joan zen Dibisio Urdinarekin, naziekin, Sobietar Batasunaren aurka borrokatzera. Handik itzultakoan, frankismoan, lekua egiten joan zen: Madrilgo Getafe auzoko artilleria akademiako irakasle hasi zen, eta ikasketak-buru izatera heldu. Gero, 1973an, ohiko lana utzi eta brigaden buru izendatu zuten, eta postuetan gora egin zuen Franco hil arte.

Trantsizio garaian UCD alderdiaren bueltan egon zen José Gabeiras. Adolfo Suárez presidentearen gobernuan Defentsa Ministerioaren Politika Gaietarako idazkari nagusia izan zen 1979ra arte. Gero, Leopoldo Calvo-Sotelo presidentearekin, Lurreko Armadaren jeneral buru izendatu zuten, harik eta Felipe González eta PSOE gobernura heldu eta kargugabetu zuten arte. ●



Irunen alarde gatazkarik ez dagoela dioten en asmoa da gaiari garrantzia kentzea, inor busti behar ez izateko

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Irungo Alarde Parekidean sortu berri den (eta ekainaren 30eko San Martzial egunean desfilatuko duen) Meaka konpainiako kapitaina da Nagore Olaskoaga.

Alardeko konpainiek auzoak ordezkatzan dituzte. Meaka auzoak konpainia du Alarde Tradizionalean, eta lehen aldiz, Alarde Parekidean ere konpainia izango du aurten. Azken urteetan konpainia berriak sortzen ari dira Alarde Parekidean; horietan parte hartzeko nahikoa jende dagoen seinale. Aurrera ari da Alarde Parekidea?

Alarde Parekidea, pixkanaka, baina urtero ari da kopuruz handitzen. Horrek ahalbidetzen du dauden behar berriei erantzutea. Gure auzoan, adibidez, auzoko konpainiaren falta sumatu izan dugu orain arte eta aspalditik zegoen jende askoren ahotan konpainia sortzeko ideia. Kontuan izan Meaka Irungo auzorik zaharrenetakoa dela eta orain arte ez duela lekurik izan Alarde Parekidean. Azkenean, 2025 urtean, dagokion tokia hartuko du, eta hori bada, niretzat, bide onetik goazen seinale.

Orain arte ez du lekurik izan Alarde Parekidean, diozu. Jende falta?

Esango nuke, kopuruaz gain, zerikusia duela baita ere auzo txikia izatearekin: denok ezagutzen dugu elkar, eta horrek beti ez du errazten lehenengo pausoa ematea. Baina kopurua funtsezkoa da, jakina. Joan den urteko uztailean galdetegi bat bidali genuen eta 100 pertsona baino gehiagoren baiezkua jaso genuen, konpainia berria sortuko balitz parte hartuko luketela esanez; ikusi zen horrek eta ondoren egindako asanbladara gerturatu ginen lagun kopuruak bermatzen zuela konpainia sortzeko aukera.

Kopuruez ari garela, Alarde Tradizionalarekiko aldea dago oraindik: Tradizionalean kopurua beheraka ari den arren, gehiago dira (iaz Tradizionalean 6.800 soldadu inguru atera zirela dio Alarde



Tradizionalaren Juntak, 5.500 inguru zirela dio Alarde Parekidearen Juntak; eta Alarde Parekidean berriaz, 2.200 herritar baino gehiagok desfilatu zuen). 29 urte pasa dira emakumeak lehenengoz alardean atera zirenetik, honezkero zifrak bestelakoak izango zirela pentsatzen zuen batek baino gehiagok...

Kopuruak direnak dira, hori ezin da ukatu, hor gauda. Baina egia da oso pozik gaudela gazte askok eta askok hartzen dutelako parte Alarde Parekidean. Eta beraiek dira gure herriaren oraina eta etorkizuna. Hori da guretzat gauzarik garrantzitsuenak.

Belaunaldi kontua da beraz...

Urteek aurrera egin ahala, belaunaldi berriak gero eta gehiago gerturatuko dira gure alardera, nik hala uste dut, eta joera horri eustea da helburua.

Salto egin dezagun kuantitatibotik kualitatibora. 2023an, adibidez, lehen aldiz Irungo alkateak eta udalbatzak harrera egin zioten Alarde Parekideari ere.

Atzetik presioa jasaten dutelako, kanpotik, ez bereziki Irungo herritarren partetik. Azken finean, gizarteak aurrera

egiten duen moduan, bere ohitura eta tradizioek ere hala egiten dute, eta bide horretan ari gara. Pertsonalki, Irungo Udaleri konpromiso irmoa eskatuko nioke, auzi honetan busti egin behar duela uste dut, alardeak publikoa izan behar duela eta eskubideez ari garela: herritar guztiok eskubide berberak izan beharko genituzke, baita jaietan ere. Momentuz, benetan busti ordez, ongi gertatzaren aldeko hautua egin du Udalak; urte asko pasa dira eta ez dugu ezer askorik aurreratu, Udaleri dagokionean.

Sarri, bai Udaletik bai hainbat sektoretatik ematen den mezua da Irunen ez dagoela gatazkarik, bakoitzak nahi duen moduan bizi dezakeela festa, herritarra nahiago duen alardean aterata.

Baina hori ez da errealitatea. Bi alarde daude, baina hasteko, aukerak ez dira berdinak, eta orain arte Meakak konpainiarik ez izatea, Meakako auzokide naizen aldetik bertako konpainian soldadu atera ezin izatea, adibide bat baino ez da.

Mezu horren atzean dagoen asmoa da gaiari garrantzia kendu nahi izatea, inor busti behar ez izateko. Baina lehen esan dut: eskubideak ukatzeaz ari gara eta neurriak hartu behar dira. Noski badoela gatazka bat Irunen.

Irunen bi alarde daude. Hondarribian aldiz, Alarde Tradizionala dago eta konpainia parekide bat (Jaizkibel), aldarrikatzen duena alardean denok elkarrekin atera ahal izatea. Horrek, nolabait, gatazka agerikoago egiten du Hondarribian.

Herri bakoitza bere bidea egiten ari da, baina ametsa bera da: alarde bakarra, publikoa eta berdinzalea.

Iritsiko da egun hori?

29 urte pasa dira dagoeneko, konturatu gabe pasa direla dirudi, baina denbora asko da, eta gauden puntuan gauda. Nire esperantza da iritsiko dela, eta horretarako egiten dugu lan, momentu hori iritsi dadin. ●

OSHW



DIANA FRANCO EGUREN

2016. urtean Ping elkarteak urtero Nantesen antolatzen duen Summer Lab-ean izan nintzen. Gurean ere halakorik badugu, adibidez uztailako lehen astean Tabakalerako Medialabean ematen dena.

Nanteseko Summer Lab-ean OSHW (Open Source Hardware / Kode Irekiko Hardwarea) inguruan, talde bat sortu zen. Talde hura FLOSS (Free/Libre and Open Source Software / Kode Irekiko Softwarea eta Software Libre) dituen lizentziak, edota edukiak partekatze-ko sortzaileen eskubideak babesteko CC lizentziak abiapuntutzat hartuta, hardware librea babesteko lizentzia eta gordailu bat sortzeaz ari ziren. Gaur egun existitzen da halakorik.

Gailuei lotuta, mastodon.eus sarean irakurri izan dut Europar Batasunak, etxean izan ohi ditugun elektrogailuetan bezala, mugikorren energia eraginkortasunari loturiko etiketa bat sortu duela, ekainaren 20tik aurrera martxan jarri dena eta honakoak baloratzen dituen: gailuak duen erresistentzia, bateriaren iraupena beste karga bat egin aurretik, konpontzeko aukera maila, iragazgaitasun maila (ura eta beste elementu batzuekiko).

Etiketa berria dela medio, mugikorraren konponente loturiko eztabaida sutuak irakurri ditut sareetan. Bada ikusten duenik, etsipenez, gailu zahar berregokituen erabilerak ekar ditzakeen segurtasun arazoak ezingo ditugula gaitu konponketen bidez. Bada uste duenik ordezeko piezen prezioa handitzean konpainiek merkaturaren menderatzen jarraitzeko estrategiak segiko dituztela.

Eta mugikorrak OSHWarengara, programaturiko obsoleszentzia eta konponketen sistema itxiak eragozteko bidea izango balitz? Badirudi galdere hori batek baino gehiagok duela buruan. Etikak gidatuta, negozio eredu alternatiboan bila ekimen ezberdinak sortzen hasi dira. Zutabe hau idazten nagoela, Liberux OSHW mugikorrak garatzeko proiektua ezagutu dut. ●

Fermin Leizaola hil da

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

81 urterekin zendu da etnografoa. Euskal Herriko artzaintzaren kultura aditua izan da; milaka pieza jaso eta dokumentatu ditu Aranzadirekin. 45 urte eman zituen Etnografia Saileko zuzendari.

Espeleologian eta etnografian zuen afizioa, ofizio bihurtu zuen gaztarotik: Fermin Leizaola donostiarra 16 urte zituela sartu zen Aranzadi Zientzia Elkartean. Ikasketaz analista kimikoa zen, baina bizitza osoa eman du Aranzadiko jardunean. Hain zuzen, 45 urte baino gehiago eman ditu Etnografia Saileko zuzendari izaten; 2024ko azaroan hartu zion erreleboa Maite Errarte. Duela zazpi urte, 2018an, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zuen etnografiaren alorrean egin-dako lanaren aitortza moduan.

Baserriari eta artzaintzari loturiko munduak liluratuta, lan handia egin du ikerkuntzan. Milaka lanabes, pieza eta bestelako dokumentu gorde eta arakatu ditu, "objektu horiei zentzua ematen zion bizimodu tradizionala desagertzen ari zela ikusi eta horrek arduratzen zuelako"; Errartek ARGIAri kontatzen zionez gero. "Gure kasuan, agian, etengabe aldatzen ari den bizimodu aktualago eta azkarrago bati lotutako beste elementu batzuek sortzen digute nostalgia edo kezka hori: haurrak ginela hainbat gauza ikusten genituen, eta dagoeneko ez".

Esaterako, 1989an, *Zaharkinak* proiektua ipini zuten abian Aranzadik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Egitasmo horren helburua zen herritarrek euren etxe eta baserrietan zituzten objektu zaharrak aldi baterako zientzia elkarteari uztea, horiekin erakusketa bat zabaltzeko. Harrera beroa izan zuen, eta hamabost urte inguruz luzatu zen proiektua.

Artzaintzaren munduan hainbeste barneratu aurretik, ordea, kobazuloetan ibili zen, espeleologian. Elkartean sartu zen unean, 16 urterekin, Historiaurrea deituriko taldean aritu zen, hala nola Jose Miguel Barandiaran, Perico Espada eta abarrekin, eta 1960tik aitzina egingo ziren indusketetan parte hartu zuen. Euskal Herrian induskatu zen lehen kobazuloan, Errenteriako Aizpitarten, egon zen Leizaola. Urteak eman zituen kobazuloetako tenperaturak neurtzen eta intsektuak aztertzen.

Kobazuloen ikerkuntzan zebilela, horietara heltzeko baserrien albotik igaro behar izaten zuen sarri. Eta askotan inguruko baserritarregana jo behar izaten zuen laguntza eske. *Berrria* egunkariko Kristina Berasain kazetariari kontatu zionez, baserritarren eta artzaintzaren munduarekin horrela konektatu zuen, "liluratu" zen: "Ni kalekume bat nintzen, eta bizimodu horren aurkikuntzak sekulako zirrara eragin zidan". ●



ARANZADI

Irungo 'auzokide patruilen' atzean, islamofobia, xenofobia eta erailketarako deiak

AIMAR LOPEZ / ANTNETA IRRATIA

Arrazakeria, islamofobia, erailketarako deiak eta mota guztietako gehiegikeriak. WhatsApp mezularitza aplikazioko "Lo Vimos en Irun" taldeko mezuak dira, maiatzaren 5ean sortu zenetik milaka mezu, bideo eta argazki trukatu dira bertan. 700 bat lagunek talde honetan antolatzen dira asteroko 'auzokide patruilak', larunbat gauetan Irungo kaleetan egiten direnak maiatza erdialdetik, delituak prebenitu nahian, antolatzaileen hitzetan. Praktikan, biztanleria magrebtarraren aurkako gorrotoaren haztegi bat da taldea, eta patruiletan behatze soilaz harago, eraso bortitzak egiteko asmoa erakutsi dute askok. Moro edo urdaiazpikoari alergiko deitzen dituztenekiko obsesio bat gailentzen da WhatsApp taldeko mezuak irakurrita.

Antxeta Irratiak hainbat aste igaro ditu taldean azken sei asteetan trukaturiko mezuak eta haien eranskinak irakurri, sailkatu eta ikertzen. Ondorioa argia da: taldean administratzaile botereak dituzten zortzi lagunak eskuin muturretik hurbil den ideologiak bultzatzen ditu. "Ideologiarik gabeko herritar taldea" di-rela behin eta berriz errepikatu arren, agenda politiko bat ezarri nahi dute Irunen. Administratzaile bat espainiar estatuko telebista batzuetako ohiko kolaboratzaile irundarra da, Israelen hezitako segurtasunean aditu mediatikoa.

"Lo Vimos en Irun" taldearen lehen ordu eta egunetan trukatu ziren mezurik bortitzenak, artean kide gutxi eta sortzaileen hurbilekoak bakarrik zirelarik

bertan. Hala, maiatzaren 7an partaide batek mezu hau igorri zuen: "Aiako Harrian bada leku bat Allahrekin azkar elkartuko lirakeena", amildegia baten argazki bat atxikiz. Erailketarako dei horri irriekin erantzun zioten hainbatek, eta kide bat kexatu zen, "errespetua" galdeginez. Segituan kanporatu zuten taldetik azken hau. Aste batzuk beranduago, ustez lapurretan ibilia zen magrebtar jatorriko pertsona bati buruz ari zirela, lagun hori lokal batean sartu eta lekuari sua emateko proposatu zuen beste kide batek. Honi, hainbat emoji bidez bihotz eta txaloekin erantzun zioten.

Ekainaren 7tik 8rako gauean, Aduana kalean zebilen patruilako talde bat. Antolatzaileek jaka horien bidez identifikagarriak direla baieztatzen badute ere, parte-hartzaile oso aktibo batek partekaturiko argazki batean argi ageri da kaleko jantzi arruntekin zebilela taldea. "Marokoar" baten atzetik zebiltzala zehaztu zuten mezuetan, eta ondoren bi bideo ilun bidali, arabiarrez egindako oi-hu batzuk entzuten direlarik soinu, besterik ez.

"Lo Vimos en Irun" taldean hamarnaka mezu eta irudi gurutzatu izan dituzte kideak, piper beltzeko esprai eta borra luzagarriei buruzko aholkuak ematen. Tresna haietako asko defentsarako legekoak izanik ere, lege kanpokoak direnei buruz umore doinu ere irakurri dai-teke gomendiorik. Are larriagoa, "jipoi" hitza gutxienez sei aldiz agertu denean taldeko mezuetan, bestelako ekimen larriagoak kontuan hartu gabe.

Gaur-gaurkoz, "Lo Vimos en Irun" taldean ez da larunbatetako patruiletan bortizkeria fisikoa erabili izanaren ebidentziarik ageri. Aldiz, intimidazio saiakera ugari irakurtzen dira, askotan denbora errealean kontatzen baitute partaideek ikusi eta egiten dutena. Gizon eta emakumeak jarraitu, inguratu eta atxiki izana kontatu izan dute azken asteetan.

ERAKUNDEAK, ITSU, MUTU, GOR

Antxeta Irratiak maiatzaren 21ean eskatu zion Irungo Udaleko Segurtasun ordezkariari 'auzokide patruilei' buruzko erreakzio bat. Bere komunikazio arduradunak Alkatearen kabinete buruaren ezezkoa helarazi zigun. Hurrengo astean, zuzenean kabinete buruari eskatu zitzaion berriz ere gaiari buruzko Udalaren erantzun ofizial bat, eta hark ezezkoa berretsi zuen. Ekainaren 12an, Sanmartzialetako segurtasun protokoloa aurkezteko prentsaurrekoan, gaiari buruz galdera egin zitzaion Irungo Alkateari, Segurtasun ordezkariari, Udaltzainburuari eta Irungo ertzain etxeko ertzainburuari. Azken honek, Andoni Urdangarinek, eman zuen erantzunean "txaleko batzuekin Irungo auzoetan paseatzen" dabilten herritar batzuei "garrrantzirik" ematen ez dietela adierazi zuen. Haien berririk izan ez dutela ere azaldu zuen, erran zuenez ez dietelako dei egin, eta "zerbait ikusten badute, [badakitela] zer egin, Ertzaintzari edo Udaltzaingoari deitu". ●

ekainak 28



Sexu askapenerako nazioarteko eguna



EY, EY...

TURISMO KOLONIALAREN BONBA LEHERTU DUELA BAD BUNNYK

Reggaetonarekin eta antzekoekin, musika estilo bat ez ezik, Puerto Ricok beste ideia bat zabaldu du mundu osora: turistifikazioaren eta iragan kolonialaren artean dagoen lotura estua. Milioika jarraitzaile dituen Bad Bunny artista da mezu horren bozgorailu. Azken diskoan Jorell Meléndez-Badillo historialariak kolaboratu du, eta Karibeko irla hartakoa “erresistentzia baten historia” dela dio. Turismoaren kalteak jasaten dituzten herrialdeetan, erresistentziarako erritmo boricuak aisago pegatzen hasi direla dirudi.

 URKO APAOLAZA AVILA

Surrealista da eszena: apo antropomorfo batekin hizketan ari den agurea, zerbait erostera doa auzoko betiko okindegira, baina *bar & grill* bat aurkitzen du haren tokian eta zerbitzaria ingelesez hasten zaio: “*Quesito-a nola nahiko zenuke? Gaztarekin edo cheeseless?*”, galdetzen dio. Surrealista guztiz, apo antropomorforik auskalo, baina Puerto Ricon edonork baitaki gazta gabeko *quesito*-rik ez dela existitzen. Opil herrikoi horrek bezala, esentzia lapurtu dioten herrialde bat balitz moduan irudikatu nahi izan du Bad Bunny musikariak Puerto Rico, PR, bere azken diskoko bideo ofizialean.

Turistifikazioak sortzen dituen kalteei buruzko kezka musika plataforma globalako playlistetaraino sartu da dagoeneko. Euskal Herrian badakigu zerbait kalte horiei buruz, etxebizitza iragarkien prezioak ikustea besterik ez dago. Duela gutxi, higiezin agentzia batek artzain borda bat salgai jarri du Itsasun 549.000 eurotan: “Ez da borda bat soilik erosgai, poesia barne du”, zioen Kazeta.eus egunkariak. Basoaren erdian, errekaño eder bat ondoan... zein aberaskumek ez luke nahi halakorik? Haserrea berehala zabaldu da herritarren artean.

Baina beste askotan gertatu bezala, turistifikazioaren ondorioak nabaritze-

rakoan ez da gauza bera non jaio zaren, zein azal kolore duzun edo bizi zaren etxearen eskriturak inbertitzaile baten izenean dauden. Eta ez da gauza bera kolonialismoa jasan duen Puerto Rico bezalako herrialde batekoa baldin bazara; lehen karabelak eta ontzi esklabistak arribatzen ziren hango kostaldera, orain banderarik gabeko putre-funtsak.

Benito Antonio Martínezek, Bad Bunnyk, errealtate hori lehen lerrora ekarri du *DeBí TiRAR Más FOToS* (DTmF) albumean. Trapa eta reggaetona erabili-





PUERTO RICO Hiru milioi biztanle bizi dira irlan eta sei milioi turista jasotzen dituzte urtero, argazkian ikusten diren bezalako txoko eta resort ezagunetara joateko. Aldiz, gentrifikazioaren ondorioz puertorricarren bi heren atzerrian bizi da, gehienak New York hiriko Bronx auzoan.

ta –musika genero horri buruz ditugun aurreiritziak aspaldi jarri zituen hankaz gora June Fernándezek, *Ezin badut perreatu ez da nire iraultza* artikuluan-, abeslariak badaki konektatzen belau-naldi gazteen ezinegon eta aldarrikape-nekin. Baina beste estilo afrokaribetar batzuk ere erabiltzen ditu, salsa, bonba edo plena kasu.

Boricuek –horrela deitzen zaie Puerto Ricon jaio edo hazi diren herritarrei– mende batez erabili duten erritmoa da

“plena” eta sarkasmoz beteriko kontakizunak sortzeko balio du, baita kritika soziala egiteko ere: *“Quieren quitarme el río y también la playa / Quieren el barrio mío y que abuelita se vaya...”* (Nahi didate erreka kendu eta hondartza ere nahi / Nahi dute nire auzoa, amiña joatea’re bai), diote *LO QUE LE PASÓ A HAWAII* abestiko hitzek. Zer gertatu zitzaion ba Pazifikoko artxipelagoari? AEBek kolonizatu eta turismoak gentrifikatutako irla artifizial bihurtu zutela. *Ay ay ay,*

lelulai esanez amaitzen da kanta, Puerto Ricon oso errotuta dagoen espresio kulturala.

ERRESISTENTZIA BATEN HISTORIA

DTmF diskoan, Puerto Ricoko memoria antikolonialista lantzeko ardura Jorell Meléndez-Badillo historialariak hartu du. Abesti bakoitzak herrialdearen historiaren pasarte bat dakar karatulan, orain arteko narratibarekin hausten duena. Meléndez-Badillok *Puerto Rico:*

historia de una nación (Puerto Rico: nazio baten historia) liburua kaleratu du eta *Jacobin* aldizkariko gaztelerazko edizioan laburbildu dute: “Bere lanak erakutsi du Latinoamerikako historia-arentzat iraultzailea dela, Bad Bunnyren azken albuma reggeatonarentzat den bezain beste”, dio Cruz Bonlarronek sinaturiko erreseinak.

Norbanakoen bizitzen bidez, historialariak deskribatzen ditu Puerto Ricon garai bakoitzean memorian “galdu” diren erresistentzia moduak: arrazismoa jasaten duen Miguel Enríquez kortsario beltza; emakume izate hutsagatik gutxietsia den Providencia Trabal *Pupa* lider independentista... Puerto Ricori buruzko hainbat mito ere ezbaian jartzen ditu Meléndez-Badillok, besteak beste, bere *statu quo* koloniala betidanik onartu duela.

Puerto Rico, ofizialki AEBei elkarturiko estatu librearen arren, “historia-ko koloniarik zaharrena” da, Leire Artolak ARGIAN (2788. zenbakia) *Puerto Rico. Historiako koloniarik zaharrena-aren oihua* erreportajearen azaldu zigun bezala. Kristobal Kolon 1493an irlan lehorreratu zenetik, taino indigenen, esklaboen eta gerrilla urbanoen *oihuak* –Karibeko tradizioan horrela deitzen diete altxamenduei– etengabeak izan

Puerto Ricoko Gobernuak onarturiko 22 Legea-k jende asko utzi du kale gorrian. Atzerriko inbertitzaileek ez dute zergarik ordaindu behar eta desjabetzei bidea irekitzen die

dira: “Puerto Ricoko historia erresistentzia baten historia da”, leitu dezakegu *Jacobin*-en.

“*Sube tú pa' la montaña, porque hoy yo me quedo acá*”, (Igo zu mendi aldera, gaur ni hemen geratzen naiz'ta) kantatzen du Bad Bunnyk, plena ezagun baten estribilloa errepikatuta. Boricuen izaera alaiaren aldeko eta turistifikazioaren kontrako beste *oihu* bat dirudike.

KEINU NOSTALGIKO BAT NUEVAYOL-DIK

Puerto Ricon hiru milioi biztanle bizi dira eta urtero sei milioi turistek inbaditzen dute irla. Aldiz, milioika dira gentrifikazioak eraginda atzerrira joan

behar izan diren puertorricarrak. *NUEVAYOL* abestian diaspora hori du gogoan artistak, eta udako sasoiaren AEBetako hirian sortzen den jai giroa deskribatzen du, eguraldiak Puerto Rico tropikalera itzultzen lagunduko balie bezala. Keinu nostalgiko horiek ez dira lelokeriak, “espazioaren eta denboraren deskolonizazio bat” sinbolizatzen dute, *80 grados* agerkari digitalaren arabera.

Ez da lehen aldia Bad Bunnyk bere abestietan turismo masiboa kritikatzeko duela. 2017an *Maria* urakanak irla kolpatu zuenetik argindar etenaldi luzeak jasan behar izaten dituzte, eta horren harira *El Apagón - Aquí vive gente* (Itzaldia - Hemen jendea bizi da) bideoklipa kaleratu zuen 2022an, Bianca Graulauk aurkeztutako dokumental batekin.

Dokumentalean salatzen da Puerto Ricoko Gobernuak onarturiko 22 Legea-k jende asko kale gorrian utzi duela. Lege horren bidez atzerriko inbertitzaileek ez dute zergarik ordaindu behar eta espekulazioari eta desjabetzei bidea irekitzen die. Hori da, adibidez, Maricusa Hernándezi gertatu zitzaiona. San Juan hiriburuan bizi zen, Santurce auzoan, eta etxetik alde egiteko 30 eguneko epea eman zioten jabe berriek gutun bidez: “Esan zidaten dirua galtzen ari zirela nirekin”, azaldu dio kazetariari.



HONDARTZAK Publikoak diren arren, haietara iristea ezinezkoa da azpiegitura turistikoaren ondorioz. Eskuineko irudian, irlaren mendebaldeko Rincón hirian epaileek hotel bateko hesia behera botatzea agindu dutela ospatzen. Ezkerrean, *TURISTA* abestiko bideokliplean Bad Bunny etxe garbitzailearen paperean jarrita, bere Instagram kontutik harturiko irudi batean.



DTMF

DIASPORA DeBí TirAR Más FOToS albumaren azalerako fotografiaturiko bi aulki plastikozkoak, munduko edozein txokotan aurki daitezkeen horietakoak, hutsik.

P FUCKIN' R... IZORRAI!

Etxebizitzak bakarrik ez, PRn dena ari da bihurtzen herritarrentzat eskuraezin, eskoletatik hasi eta hondartzetaraino. Dokumentalean, Graulau saiatzen da hotelek inguraturiko hondartza eskusibo batera iristen; horretarako Rosa Riveraren laguntza izango du, Dorado Beach resortean lan egiten duen etxe garbitzailea: "Esango nuke turistentzat garbitu baino zertxobait gehiago egiten dudala, Puerto Ricoren 'zaporea' eskaintzen diet", azaldu dio kamerari irri txikiarekin. Hondartzak publikoak dira herrialdean, hor doaz biak itsasertzetik, kazetaria eta etxe

garbitzailea, baina bidea itxita aurkitu dute.

Bad Bunnyk diru asko irabazi du musika komertziala egiten, eta ez du erreparorik aberatsen festibaletara joateko, baina kontraesanak kontraesan, salsa doinuekin eta mezu garbi batekin amaitzen du diskoa: "*De aquí nadie me saca, de aquí yo no me muevo / Dile que esta es mi casa, donde nació mi abuelo / Yo soy de P fuckin' R*" (Hemendik ez nau inork aterako, hemendik ez naiz mugituko / Esaiozu hau nire etxea dela, aitona hemen jaio zela / Ni naiz *P fuckin' R*-koa). Izorrai lelolai!

Kanarietan, Mexikon, Costa Rican,

Asturiasen, Balearretan, zein Euskal Herrian, ez da oso desberdina eredu turistiko basati honekin gertatzen ari dena. Donostiako Alde Zaharrean sartuta, ez al gara laster *quesito*-a jan nahi duen agurearen larruan sentituko? Ordaintzera joan eta *no cash* esango digu zerbitzariak, hari bezala. Eskerrak aldameneko lagunak mugikorra atera eta erositakoa ordaintzen dion: "*Seguimo aquí*" (Hemen jarraitzen dugu) esaten dio irribarretsu. (PD: Bide batez, jakin nahiko bazenu... apo antropomorfoa existitzen da, *concho* deitzen diote eta Puerto Ricon desagertzeko zorian da- goen anfibio endemikoa da). ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com





BERTSOLARITZAN ERE BADAGO AURRERAPENAREN KONTRA DAGOEN KORRONTE ERREAKZIONARIOA



Lau urtero hiru txapelketa jokatzeko ari da Oihana Bartra Arenas azken hogeitun urteetan. Bertsolaritza lehia baino gehiago dela jakitun da, baina lehia uzteak ekar lezakeen amildegiak beldurra ematen dio.



ONINTZA ENBEITA



EIDER ITURRIAGA / ARGIA CC BY-SA

Bizkaiko bertsolari txapelketa hasi da berriz ere.

Bai [hasperen luzea egin du].

Udaberriko fasea jarraitu duzu?

Inguruko batzuk ibili dira fase horretan, baina txapelketarekin ahalik eta gutxien konektatzen saiatu naiz. 41 urte dauzkatz, 14 nituenetik parte hartu dut txapelketetan, eta oraindik ez dut lortu txapelketa modu lasai eta bizigarrian bizitzea. Aurten ere tripako mina jarri zitzaidan e-maila jaso nuenean; baina izena eman dut.

Zergatik?

Ez noa txapelketara nire borondatearen kontra. Errespetu handiz parte hartu dut beti, eta txapelketak gauza on asko eman dizkit; esate baterako, 2023ko Bizkaiko finalean egotea ederra izan zen. Hala ere, nik benetan nahiko nukeena da txapelketan ez parte hartzea: beldurragatik jarraitzen dut hor.

Beldurragatik?

Bai. Bertsolari izateko modu nagusietako bat txapelketan egotean datza oraindik ere.

Bertsolari izateko bide batera ohituta gaude: eskolarteko txapelketak, gazte sariketak eta herrialdeko txapelketak. Badago, gaur egun, bertsolariak plazartzeko beste bide bat sortzeko bermerik?

Baietz eta ezetz iruditzen zait aldi berean. Alde batetik, beste zirkuitu eta balidazio mota batzuk ari dira sortzen. Baliteke bertsolari izaterainoko bidea aldatzen hasi izana, baina beste alde batetik, txapelketak pisu handia izaten jarraitzen du, eta plazak horren arabera banatzen dira. Ez erabat, baina bai nagusiki.

Bizkaiko azken finala aipatu duzu.

Bost emakume izan ginen han.

Zuretzat zer esan nahi izan zuen?

Bertsotan hasi ginenean bertsolaritza zen argazkitik argazki horretara egin du-

gun bidean pentsatzen dudanean hunkitu egiten naiz. Bertsozaleak ez diren lagunak badituz, eta jasan dugunaz hitz egiten diedanean ez dute ulertzen nola heldu garen honaino. Eta geuk ere askotan ez dakigu zergatik ez dugun utzi jasan duguna jasanda. 2023ko Bizkaiko finaleko argazkiak sinbolikotik benetarikotik baino gehiago izango du ziurrenik, baina erakustaldi bat izan zen. Hemen gaudela esateko modu bat, gelditzeko etorri ginela.

Zer jasatea tokatu zaizu zuri, batez ere?

Nire ibilbidea aletuz gero, zertzelada finagoak egongo dira, baina ateratzen zaidan lehenengo gauza da: *baboseoa*. Askotan sentitu dut erasoa bertsotan ari nintzela: gure gorputzari buruzko komentarioak, gurekin larrutan egiteko desioari buruzko bertsoak... batzuetan gordin esan digute, eta beste batzuetan fin, baina bertso saio guztietan zegoen.



Oihana Bartra Arenas

BILBO, 1984



Bilbok, bertsolaritzak eta euskarak "korrontearen kontra doan jendearekin" elkartu dute Bartra. "Niri gustatzen zaidan jendea hori da: sinisten duen gauzen alde borrokatzen duena", dio. Agian, horregatik elkartzen ditu astero bertsotan ikasi nahi duten señora mordo bat: bertsolari izateko beste modu batzuk eraiki daitezkeelako. Berak ere sinisten duenaren alde jarraitzen duelako horrela.

Normalizatuta geneukan. Batzuetan pentsatzen dut hori izan zela gizon bertsolariek gurekin harremanak izateko zuten modu bakarra.

Emakume bertsolariek askotan salatu dute emakumeen kupoa betetze hutsagatik egon direla saio askotan. Zure kasuan kupoa bikoitza da: emakumea eta gune ez euskalduneko bertsolaria.

Hainbeste urte oholztan egin eta gero, uste dut bertsozale eta antolatzaile multzo batek ezagutzen nauela. Beraz, deitzen badidate nik egiten dudana gustatzen zaielako da. Dena den, badira oraindik ere neska bat behar dutela berbalizatzen dizutenak telefonoaren beste aldetik. Gero, argi daukat bilbotarra izateak, edo euskaldun berria izateak eraman nauela kupoa batzuk betetzera, baina era berean, baldintza horregatik beragatik ez dudala zenbait eremutan kantatu. Litekeena da nik ez izatea zenbait eskualdetan funtzionatzeko hizkuntzarik, baina hala den edo ez erakusteko aukerarik ere ez dide eman. Kupoak eman dizkit saio batzuk, baina kanporatu egin nau beste batzuetatik.

Zu hasi zinenetik hona, bertsoaren panorama zertan aldatu da, aldatu baldin bada?

Asko aldatu da, eta aldi berean ez da hainbeste aldatu. Emakumeen presentzia hor dago, eta egun, genero disidentek ere badira bertsolari. Horrek bertsolaritza beste leku baterantz darama. Guk oholtzara salto egin genuenean deserosotasun batzuk sortu ziren zenbait jenderen artean, eta orain, uste dut helburua gu ere deseroso sentiaraztea izan behar dela beste batzuentzat. Jakina, aurrera egin ahala erreakzioak sortuko dira. Bertsolaritzan ere badago aurrerapenaren kontra dagoen korronte erreakzionarioa. Gizartean gertatzen dena errepikatzen da gure artean, eta hor goaz borrokan.

Hainbat lekutatik iritsi den kritika da bertsolaritzan ideologia bat dela nagusi. Hori horrela dela uste duzu?

Egungo gizartean egoteko edo parte izateko modu bakarra balidatzen da, eta esango nuke, hor bai gailentzen dela ideologia bat: oso eskuinekoa. Gurearen moduko esparru batean, justu horren kontrako mugimendua izatea

deserosotasuna sortzen duena ez dut ulertzen. Eta gainera, ez da egia bertsoaritzan diskurtso bakarra dagoenik. Arazoa izango da, orain entzuten diren diskurtsoek hazkura sortzen dutela edo batzuk ez daudela eroso diskurtso horien parte sentituta.

Diskurtso horietara heltzeko bidea egin da. Zeu lehen baino erosoago sentitzen zara bertsotan?

Dudarik gabe! Ez da Kasualitatea, Izan Inurri... eta halako plazetan, esate baterako, askoz erosoago sentitzen naiz. Beste saioetan ere gozatu egiten dut, baina hor nire bertsiorik onena ematen dut, lasai egoten naiz, ez dut sentitzen nire bertsokideek epaitu egingo nautenik, publikoarekin konplizitate berezia sortzen da... halako saioetan dagoen giroak eta diskurtso aldaketak erosotasuna ekarri du niretzat edo guretzat. Ez ditzagun gauzak nahastu baina: askorentzat erosotasuna beti egon da. Eta orain, agian, gu eroso sentitzen garen eremu eta gaietan deseroso sentitzen hasi direlako leporatzen digute gure gaietatik kanpo ezin kantatua.

Edozelan ere, diskurtsoaren garapena ona da guztiontzat: gure posizioa etengabe errebisatzera behartzen gaitu. Denok ari gara bidea egiten. Kontua da batzuk prest gaudela baldintza horietan ikasteko eta garatzeko eta beste batzuek ez daukatela gogorik haien lekutik mugitzeko.

Orain hasiko bazina bertsotan, egin duzun zer ez zenuke egingo?

Gaur egungo Oihanak gaur egungo mundutik erraz esan lezake zer ez lukeen egingo, baina 15 urteko Oihana hark, 1990eko hamarkadan, Adidas txandala jantziko luke berriz ere bertsotan ahalik eta ikusezinena izateko: orduan ezin izan zuelako besterik egin.

41 urte bete dituzula esan duzu: 18 zenituenetik kantatu duzu Bizkaiko txapelketan, ehundaka plaza egin dituzu, Euskal Herriko txapelketan ere kantatu duzu... emakume askoren kasuan bezala, ordea, emakumez edo feminismoaz hitz egiteko bakarrik deitzen dizute. Aitortza falta dagoela iruditzen zaizu?

Zenbat aldiz esan diguten lehenengo egiteko bertsotan ondo, eta gero hitz egiteko feminismoaz eta gure gauzez. Izan ere, gu beti ari gara, ustez, gure



gauzez hitz egiten. Baina guk egiten duguna ere bertsolaritza da, maiuskulaz. Hortik dator aitortza falta. Dena dago kanonarekin lotuta, eta kanona gizona da. Ez dezagun ahaztu biziara dizkiguten zenbait egoerek eraman gaituztela feminismoaz hitz egitera. Bertsolaritzan zehazki, eta kulturaren orokorrean, gero eta gutxiago interesatzen zait kanonari erabat lotuta dagoena.

Zer da zuri interesatzen zaizuna?

Interesatzen zaizkit emakume izatearren gurutzatzen nauten gauza guztiak, eta agian horregatik interesatzen zaizkit emakume bertsolariak. Adibidez, adinari lotutako kezak badituzte: nolakoa izango da adineko emakume bertsolari baten bizitza, nola aldatuko dira gure arteko harremanak adinarekin... eta gero munduan gertatzen diren gatazka handi eta txikiekiko ardura ere badaukat.

Adina aipatu duzu. Gizon bertsolariak nola zahartu daitezkeen ikusi dugu, baina emakumeak plazan zahartzeaz ez dakigu ia ezer.

Askotan pentsatzen dut emakume adindu bat bertsotan nolakoa izango den. Ama izatearekin ere gertatu da, baina hor orain, erreferente asko zaudete oso desberdinak. Ama izateko eta bertsotan jarraitzeko modu bat baino gehiago erakutsi diguzue. Ereduak sortzen ari zarete datozen emakumeentzat eta hori izuga-

rria da. Adinarekin gauza bera gertatuko da. Gu baino apur bat nagusiagoak zaretenoi esker, ikusi dugu momentuz jarraitu daitekeela, baina goitik margen handia daukagu, eta ez dakigu hori nola beteko dugun. Niri, ez dakit ze erritmotan, baina gustatuko litzaidake adinean gora ere bertsotan jarraitzea, baina ezin dut irudikatu zein egitura edo ehunek eutsiko gaituen.

Nerea Elustondok azken Gipuzkoako txapelketako finalean bota zuen ilea urdindu arte jarraituko duela txapelketan. Aldarrikapen kutsua zuen agur horrek, ala?

Emakumeak orokorrean, adinarekin desagertu egiten dira edo ikusezin bihurtu. Ez da bertsolaritzan bakarrik gertatzen. Nerearen agurrak hori apurtu zuen aldarrikapen bat eginez: hemen jarraituko dugu. Askok kostatzen zaigu halakoak esatea, ze batzuentzat egoteak eta irauteak ez dauka kosturik, baina beste batzuentzat irautea indar ariketa bat da. Eusteko modu bakarra kolektiboa izango da.

Emakume bertsolari asko daude, gaude edo zaudete 50 urtera hurbiltzen.

Kolektibo horretaz ari zara?

Oso garrantzitsua da gure arteko harre-

mana. Nik bertsotan jarraitzeko arrazoi indartsuena beste emakume bertsolariekin sortu dudana harremana da. Aurrera jarraitzeko modua hortik etorriko da.

Txapelketatik goiz samar erretiratu den jende asko dago. Bertso txapelketek ez al dute eliteko kirol txapelketen antza hartu zentzu horretan?

Txapelketa da pertsonak erretzeko makina.

Txapelketa bera, hura bizitzeko dugun modua edo txapelketak sortzen duen hori guztia da erretzen gaituena?

Dena. Azkenean, bere gauza on eta txarrekin txapelketa espektakulu bihurtu da. Jendearentzat ikuskizun erakargarria da, baina dituen arauak direnak dira, eta dira sistemak ipinitakoak. Eta sistemak badakigu nor saritu eta nor zigortzen duen. Horrek ekarri digu guri txapelketa bizitzeko modu bat. Ikasi beharko

genuke txapelketa beste era

batera jasaten, eta hori gu-

tako bakoitzaren lanketa

izango da, baina txapel-

ketaren bidea hilotzez

beteta dago. Funtzio

onak baditu, baina gor-

dina eta krudela da.

Ondo ateratzen denean

pozgarria da, baina da-

tuek esaten dute zortzi

bertsolari bakarrik iristen

direla finalera, beraz, beste guz-

tiekin modu handiago edo txikiagoan

porrota bizi izango dute. Bidean gelditu

den jende horri txapelketak esan dio ez

dela besteak bezain ona eta hori injustua

izateaz gain, gezurra da. Txapelketa, zen-

tzu horretan, gezurra da.

Baina entzuleek gezur hori sinistu egiten dute.

Geuk eman diogu balio hori. Ez naiz inori kritika egiten ari, geure buruari baino. Han finalean gaudenean, sekulako dibak garelako pentsatzen dugu, eta ez da egia. Onartu behar dugu ez garelako inor baino gehiago, eta horra iritsi garelako kasualitatez, burugorriak garelako, eta injustua dela gu hor egotea eta beste batzuk ez.

Maiatzean hasi da sailkapen fasea, eta injustiziaz injustizia iritsiko da abenduaren 20ra. Zer espero duzue abenduaren 20ari begira?

Zintzoa izanda, han egotea kantatzen.

“”

‘Baboseoa’ jasan izan dut. Askotan sentitu dut erasoa bertsotan: gure gorputzari buruzko komentarioak, gurekin larrutan egiteko desioari buruzko bertsoak...

Abiapuntu ona da. Ze bertsolariek ez dute sekula aitortzen irabazi nahi dutenik nahiz eta lehian parte hartzen duten.

Nik han egon nahi dut. Aldi berean, badakit oso erraza dela han ez egotea ere, eta horrek beldurra ematen dit. Bidean ahalik eta gutxien sufritu nahi nuke.

Zure bizitzako borroka bakarra ez da bertsolaritzan egon. Biran egin diguzu zita gaur, proiektu honen parte aktiboa izan zara sorreratik. Erraza ote da Bilbon euskararentzat eta euskal kulturarentzat erreferentziatzko lekuak sortzea?

Bira berau, esate baterako, une larrian dago. Diru laguntza publikoak jasotze-ari utziko diogu neurri handi batean, eta horrek guztia birpentsatzera derrigortu gaitu. Dena bertan behera uztea ere mahai gainean egon da, baina badirudi, proiektu honek aurrera jarraituko duela bihotz oneko jende militante asko dagoelako. Hala ere, neurri berria asmatu behar dugu proiektuarentzat. Birak Bilboko kulturagintzari ekarpen garrantzitsua egin dio zortzi urte hauetan, erreferentziatzko leku bihurtu gara, eta horri eutsi egin nahi diogu.

Euskarari eta kulturari buruz hitz egiten ari garenean, ez dizu amorrua ematen beti borondatea, militantzia eta halako hitzak erabili behar izateak?

Handia. Euskal Herrian eta Bilbon korronte nagusia bat da, eta ez balu jende askoren indarrak presa lana egingo, korronte hori lasai-lasai nagusituko litzateke. Bilbon jende askoren militantziak sostengatzen du presa hori. Dena gelditzen da jendearen borondatearen, lanaren eta indarraren gain, baina beste gauza batzuetarako baldintza onak sortzen dituzte.



Dirutza bideratzen da gauza handientzat: museo handiak, jaialdi handiak ingelesezko izenekin... eta urte guztian irekita dauden proiektu txikiak itota zaudete.

Hala da. Beste adibide bat dira Bilboko auzoetako jaiak. Jasotzen duten diru-laguntza lotsagarria da. Oraindik indarra dute, jendeak egiten duen lan izugarriari esker. Bestela Bilboko auzoetako jaiak eta Aste Nagusia Heinekenen kaseta batzuk eta guregandik urrun bizi diren musika taldeen kontzertuak izango lirateke.

Korronte horren kontra joateak zenbat nekatzen du bat?

Izugarri! Baina aldi berean ez dakigu beste modu batean bizitzen.

Korronte nagusi horri orain turisten fluxua gehitu zaio. Zure moduko bilbotar batentzat zer da hori?

Bilbo gero eta gutxiago da leku bizigarria. Orain Alde Zaharrean gaude eta hemen, adibidez, komertzioa desagertu egin da, dena dago turistei begira, gaz-

teek ezin dute etxe bat alokatu... horri aurre egitea itsasoari ateak jartzearen antzeko zerbait da, baina Bilboko herri mugimendua eta auzoetako elkarteak ari gara ekinean. Latza da ikustea Bilbo izan zitekeela Tokio edo New York eta kafea ateratzen dizun tabernariak ez dakiela euskaraz, baina ingelesez bai. Gero eta gehiago gertatzen zaigu gure hirian arrotz sentitzea. Auzoetan giroa lasaia goa da, baina erdiko olio mantxa honi buelta ematea oso zaila da.

Euskaratik urrun bizi den gero eta jende gehiago ote dago gure inguruan?

Guka izeneko mugimendua aktibatu genuenean, esaten genuen Bilbo euskaldunak erdalduntzeko makina dela, baina hori ez da turismoarekin etorri, lehen ere hala zen. Bilbotarrok ezin dugu hirian euskaraz bizi instituzioetatik hasita: Bilbok ez dauka euskararen ordenantzarik. Horregatik dira Bira bezalako arnasgu-neak hain garrantzitsuak; komunitatea saretu eta indartu egiten dutelako. ●

Garenaz harro

EKAINAK 27 / 19:30, Erribera Kulturgunea
Film-laburren emanaldia (Zinegoak).

EKAINAK 28 / 19:30, Kontxa Etxeberria plaza
Mikra, zirku garaikide ikuskizuna. Berdinki konpainiaren eskutik genero rolen eta botere harremanen inguruko gogoeta.



Astigarragako Udala



Iritziak

Israelek gerra hasi eta Mendebaldeak babestu



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Wesley Clark AEBetako jeneralak azaldu zuen moduan, 2001eko plana zen bost urtetan zazpi herrialde hartzea: Afganistan, Irak, Somalia, Sudan, Libano, Siria eta Iran. Ez dira bost urte izan, baina denak, azkena Siria, erori dira, Iran izan ezik.

Iranek erasoak Sirian, Iraken eta etxean sufritu ditu. Hezbollah-ren aurkako erasoak lazgarriak izan dira eta Siriako Arabiar Errepublikak desagertu da. Horri guztiari erantsi behar zaizkio Iranek sufritzen dituen blokeoa eta zigor ekonomikoak. Horregatik, batzuek pentsatu dute zazpigarren fitxa eror zitekeela eta horretan jarri dute Israel, Irani eraso egiten, nazioarteko legedia hausten.

“Potentzia errebisionista” esaten zaio herrialde bat nazioarteko harremanen status quoarekin ados ez dagoenean eta hori aldatzeko jarrera aktiboa hartzen duenean. NATOk herrialdeek diote Errusia, Txina edo Iran potentzia errebisionistak direla. Halere, lehenengo errebisionistak Mendebaldeko herrialdeak dira. Gerra Hotza amaitu zenetik NATO status quoaren aurka egiten hasi zen, bere mugak zabaltzen eta eraso gerra ilegalak abiatzen. Horregatik, Mendebaldeak nazioarteko legediarekiko interesa galdu zuen, oztopoa baitzen polo bakaerreko mundu hegemonikoa eraikitzeko. Baina beste herrialde batzuk beraien interesen defentsan nazioarteko legedia estresatzen edota hausten badute, NATOk herrialdeek “arauetan oinarri-

Iranek Israelen
erasoaren aurrean
emandako erantzuna
gaitzetsi dute, berriro
ere agerian utzita
Mendebaldearen moral
bikoitza eta nazioarteko
legeekiko erdeinua

tutako munduaz” hitz egiten dute. Nazioarteko legedia herrialde guztiei aplikatu beharko litzaieke, aldiz, “arauetan oinarrituriko munduan” arauak ez zaizkio Mendebaldeari aplikatzen, baizik eta gainerako munduko herrialdeei soilik.

Horrek azaltzen du zergatik Israel jaio zenetik nazioarteko legalitateak aitoritzen dituen lurralde palestinarrek okupatzen joan den. Gaur egun, Zisjordanian lurraldeak anexionatzen jarraitzen du eta Gazan genozidioa egiten ari da. Siriako Golana anexionatu du, eta egun bere armadarekin Siriako eta Libanoko beste lurralde batzuk okupatzen ari da. Horrez gain, inguruko herrialdeak (Palestina, Libano, Siria, Yemen edo Iran) nahi duenean bonbardatzen ditu.

Oraingoan Irani eraso egiteko erabili duen aitzakia da 1990eko hamarkadatik

errepikatzen ari dena: Iran arma nuklearrak lortzear omen dago. 2025ean gaudela eta oraindik ez du arma nuklearrik. Teheranek hainbat unetan akordioak lortu ditu NBerekin eta hainbat herrialderekin pobretutako uranio ekoizpena murrizteko. Azkena 2015ekoa izan zen. Dena ondo zihoan, 2018an AEBak akordiotik erretiratu ziren arte. 2020an, Washingtonek Qasem Soleimani komandante irandarra hil zuen Bagdadeko Nazioarteko Aireportuan misio diplomatikoan zegoela. Ondoren, Israelek Iran probokatzen jarraitu du, baina Teheranek, tentuz, probokazioak saihestu ditu.

2024an inflexio-puntua izan zen: Israelek Irango Damaskoko kontsulatua bonbardatu zuen eta hamasei pertsona erail, Teheranen Ismail Haniya (Hamaseko buruzagia) hil zuen eta Beiruten aireko erasoan 30 pertsona baino gehiago erail zituen, tartean Hasan Nasralla Hezbollahko buruzagia. Ondorioz, *ekintza-erreakzioa-ekintza* logika martxan jarri zen, gerra irekira pasa den arte. AEBen eta Iranen artean pobretutako uranio ekoizpena gutxitzeko negoziazioen erdian, Israelek Irani eraso egin eta dozenaka zibil eta guardia iraultzailearen buruzagitza militarra erail ditu. Mendebaldeko herrialdeek, betiko legez, isiltasuna, ulermena edo laguntza esplizitua adierazi dute. Jakina, Iranek Israelen erasoaren aurrean emandako erantzuna bai gaitzetsi dutela, berriro ere agerian utzita Mendebaldearen moral bikoitza eta nazioarteko legeekiko erdeinua. ●

Ea hurrengorako ikasten duzun...



MALORES ETXEBERRIA

"Ea hurrengorako ikasten duzun...". Horrela agurtzen zuen amak onkologoa, kariñoa eta lotsarik gabe, kontsultatik ateratzen ginen bakoitzean. Hamar bat kontsulta egingo genituen bospasei urteren bueltan, eta agurra beti bera izaten zen. Emakume atsegina eta gozoa zen onkologoa, eta erreparo puntu bat ere nabaritzen nion kontsultara sartzen ginen bakoitzean. Ez dakit ikastera iritsi zen ala ez.

Mikatzagoa izan zen beste senide batekin izandako esperientzia. Adineko pertsona, euskalduna eta euskaltzalea, zulo beltzetik atera ezinda Donostiako psikiatria sailean ingresatu genuenean. Arreta ematen ari zitzaion mediku psikiatra buruari adierazi genion garrantzitsua iruditzen zitzaigula pertsona hartaz euskaraz zekien mediku bat arduratzea, bere barruan zeramana adierazteko eta hurbiltasuna sentitu ahal izateko. Lehor eta zakar erantzun zigun bere ustetan horrek ez zuela zerikusirik gaixoaren sendatze prozesuan eta berak jarraituko zuela haren arduradun izaten. Ez zekien tutik ere euskaraz.

Duela 30 urteko kontuak dira horiek. Izan zitezkeen gaurkoak ere. Aldatu dira gauzak, baina ez hainbeste. Euskaraz gehiago entzuten da osasun zentro eta ospitaleetan orain. Belau-naldi berrien iritsiera antzematen da,



MAIDER LETURIAGA

baita profesional batzuen jarrera aktiboa ere, baina ez da sistematikoa eta nekez egin daiteke zirkuitu osoa euskaraz, trabarik gabe, eroso.

Orain dela hamar bat urte ireki zuen Osakidetza arreta euskaraz nahi zuten herritarren erregistroa osatzeko aukera eta irekita dago egun ere. 370.000 herritar inguruk omen dugu izena emanda. Nik ez dut inoiz sumatu inork erregistro hori begiratzen duenik espezialista batengana edo beste batengana bideratzeko orduan edo familia medikua izendatzerakoan, adibidez. Berrikitan ospitalizazioetan gaixoaren eskumuturrean jartzen den pultseran "e" ikurra txertatzeko erabakia hartu dute. Batere garbi ez dagoena da zure eskumuturrekoan "e" agertzen

bada, arreta euskaraz eskainiko dizuten ala ez. Ez zait egoera berri hori bizitzea tokatu, baina irudipena daukat behia erosi baino lehen erosi dutela zintzarria, eta eskumuturra behin baino gehiagotan altxatu beharko duela gaixoak, gauza bada, behintzat.

Kontua da ekimen horietan guztietan gaixoa bera edo haren ondokoa dela arreta euskaraz jaso nahiko lukeela adierazi behar duena, alderantziz izan beharrean. Arreta, eskatu gabe, euskaraz emateko prestatuta egotea da zerbitzu publikoaren helburua eta gaixoari lehen unetik euskaraz egitea, gaixoa izan dadin hizkuntza hautatuko duena eta ez profesionala. Hori zen eta da administrazioaren xedea, aspaldidanik osasun arloko profesional euskaltzaleak erreibindikatzen ari direna, eta oraintsu Aintza osasungintza euskalduntzeko mugimenduak eta EHEk kaleratu duten manifestuaren muina. Norabide egokia hori da, eta ez euskaldunak, hil hurren gaudela ere, geure ahalduz maila erakutsi behar izatea.

Eta bien bitartean, ez dakien osasun profesionala izan dadila paparrean "ez dakit euskaraz" jarriko duena, edo agian hobeto "barkatu, ez dakit euskaraz". Erreparo gutxiago izango dut euskaraz dakien profesionala eskatzeko edo gutxienez "ea hurrengorako ikasten duzun..." esanez agurtzeko. ●



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Oporrik ez elkartasunari

Prekaritateak prekaritate, Euskal Herriko ezkerreko militanteak, oro har, ez gara txarto bizi. Udako oporrak dira horren adibide, asko baikara atsedean plan bikaina dugunok; ikastaldi aroko gure ekologismoari, ordea, keroseno kiratsa dario. Zein baino zein hegaldi garestiagoak hartuko ditugu, lehia ahalkegarrian, nor urrunago, nor paradisu gentrifikatuago batera. Gerta daiteke zirrikitu bakartiak nahiago izatea eta, orduan, gure furgoneta kanperizatuarekin abiatuko gara, bazter erromantiko-ekutuenerainoko safari “mendizaleetan”, pneumatikoen lorratzaz mendia desondratuz. Betiere, nork selfie irribarre-tsuagoa, liluragarriagoa atera.

Bidegabekeriek ez dute etenik, ordea. Kaleratzeek, *txakurren* gehiegikeriek, eraso matxista/arrazista/homofobo eta abarrek... ez dute bakantzarik hartzen. Eta, oso zorigaitzez, Israeleko tankeek ez dute oporraldi tankera handirik.

Gure lan prekarioetan larruak utzi ostean, ordea, ez al ditugu guk ere merezi lantokietan luzaz borrokatutako opor horiek...?

Bada, *Jaia bai, borroka ere bai!* leloak, zaharra izanagatik, ez luke zertan modaz kanpo egon. Badira gure paisaia ederretan plan erakargarriak aukeran, dibertigarriak, borrokalariak, kulturaz eta esperientzia betegarritz josiak. Esa-

terako, EHZ, udako lehen hitzordu herrikoi handia; ekaina amaieran, Arbera-tze-Zilhekoan, txoko, eskaintza, giro eta antolakuntza paregabeak! Jarraian, Hattortxu Rock: presoan aldeko jairik erraldioenaren azken emanaldia izango dugu aurten Lakuntzan. 100 kontzertuotan ozen abestuko dugu, azken presoak etxeratu arte borrokan jarraituko dugula!

Bi festibalotan dugu parada hainbat hitzaldi edota tailerretan esku hartzeko; berbarako, Joxemi Zumalabek antolatuko dituenak Herri Mugimendu(ar)en eraginkortasun politikoari buruz hausnartzeko. Zein eragin izan dute azken urteotako aldaketa politikoek mugimendu borrokalarietan? Militante izan ala ez, denak gonbidatuta gaude gure iritzia ematera!

Eta aizu, hegaldi bat hartuz gero, izan dadila borrokan diren herriei gure ekarpentxo eskaintzeko. Oraindik ere, urtero antolatzen dira brigadak munduko hamaika txokotara elkartasuna eramateko. Orobat, Palestinaren alde hemen egiten dugunak ezer gutxiarako balio duela pentsatu ohi dugu, ikusita sarraskiak ez duela etenik. Bada, ekaina erdialdean, adibidez, deialdia egin zuten Egiptora bidaiatzeko Gazako mugan presioa egiteko helburuz. Etorriko dira deialdi gehiago! Oporretan ere, elkartasunari eutsi! ●

Alferrikako bidaia



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Lehengoan batera elkarriketatu gintuzten Gonzalo Hermo poeta gali-ziarra eta neu. Kontatzen nion niri ere gustatuko litzaidakeela esatea nire aurrekoak marinela izan zirela, baina nire familian denak dira galdatzaileak. Gainera, eremu industrial batean bizi naiz, itsasotik urruti, eta nire etxetik lantegiak ikusten ez badira ere, garai batean gai nintzen urrutitik bereizteko zer zen galdatzen ari zirena, aluminioa edo burdina. Eta esaten nion aspertu egiten naizela lantokian, dirulaguntzak banatzen ditudala eta, edo asmatzen dudala,

edo ez zaidala aparteko ezer gertatzen idazteko modukoa denik. Elkarriketa hura berriki Camila Sosa Villada poeta argentinarrari irakurritakoarekin gurrutzatu zait. Bere ustez bi idazle mota daude: fantasia idazten dutenak edo oroitzapenak idazten dituztenak. Esaten du berari buruz idazten duela beti, baina beti ez dela posible. Izan ere, batzuetan idatzi eta ezabatu egiten du idatzitakoa, horrela bere burua suntsituko balu bezala. Alferrikako bidaia dela buruan duguna eta idatzi ezin den hori. Idazten ez den bitzita badela. ●

Ezusteko bila



ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
EUSKALTZALEA

Madrilgo presidente Ayuso faxistak itsuskeria egin dio EAEko lehendakari Pradalesi, euskaraz aritu delarik, harrokeriaz, aldibereko itzulpen sistema erabiltzeari uko egin eta alde eginda. PPko senatari batek ere “txorradatzat” hartu du “hogei espainiarrek” aldibereko itzulpena baliatuta aritzea bilera batean. Lehendakariak eta EAJko ordezkariak euskararen erabilera babestu dute, eta frankisten zapalketarekin parekatu dute PP alderdiaren jarrera. Horraino ezustekorik ez.

PPko senatariak, ordea, beste alderdi bat ere haizatu du: egunerokoan aldibereko itzulpen sistema baztertu eta erdaraz aritzen direnen hipokrisia; ez zen senatariez ari, Eusko Jaurlaritzako Gobernuaren Kontseiluko kideez baizik. Hau da, leporatu die Madrilen euskaraz aritu nahi izatea, baina euskararen lurraldean gaztelaniaz eta aldibereko itzulpenik gabe aritzeko erreparorik ez izatea. Antzeko egoerarik topatu izan dut hemen; azken al-

Goiak oraindik ez du bermatu udaleko Ekialdeko Barrutian parte hartzen dugunok, norberak bere hizkuntzan hitz eginez, elkar ulertzerik (hizkuntza kontuez ari naiz)

diz, Donostiako Ekialdeko Barrutiaren maiatzeko batzarrean, alkate Goiari oroitarazi behar izan baikenion erabilgai zuela aldibereko itzulpena.

Donostiako alkateak ere badu beste ageriko kontraesan bat aldibereko itzulpenari lotua, Ekialdeko Barrutia udal egitura abiatu zenetik zazpi urte igarota ere, oraindik ez baitu bermatu

bere lantaldeetan parte hartzen dugunok, norberak bere hizkuntzan hitz eginez, elkar ulertzerik (hizkuntza kontuez ari naiz). Euskaldunok behartuta egoten gara bileretan gaztelaniaz aritzera, gainerakoek ulertzea nahi izatera. Egoera hori salatzeaz batera, irtenbidea ere eman genion aldibereko itzulpen sistema bat erostea bultzatuta, duela hiru urte. Ordutik, ordea, Donostiako Udal Gobernuak ez du erabili, elkartek eta alderdiek, baita PPko ordezkariak ere, behin eta berriz eskatu arren. Horretarako aitzakia itzultzailearen kostua omen.

EAJko neoliberalekin, bueltan-bueltan, beti koska berean egiten dugu topo: sosa eskas, izan euskararen eza gutza unibertsalizatzeko, izan aldibereko itzulpena baliatzeko, edota benetan eraldatzaileak izan daitezkeen beharretarako. Euskararen alorrean “jauzi kualitatiboa” agindu du Pradales lehendakariak, “kontsentsua oinarri”. Tira, poztuko nintzateke ezustean harapatuko banindu. ●



Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa

ENERGIA BERRIZTAGARRIEN HEDAPENA

Analisi bat lurra esku pribatuetan ez uztearen alde

Halaberharrez, ugariak eta askotarikoak dira Euskal Herrian energia berriztagarrien neurrigabeko zabalpenaren aurka antolatutako mugimendu, plataforma eta elkarteak, gehien-gehienak lurraren defentsan diharduten kolektibo sozial eta politikoetatik sortuak. Urriagoak izanagatik, badira instituzioen barnetik sortutako dinamika kritikoak ere, hizpidera dakarkigun Gorbeialdeko Herri

Unibertsitatea kasu. EHUKo zenbait akademikok bultzatutako dinamikak Eusko Jaurlaritzaren Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala aztertu eta hobetzeko proposamenak aurkeztu ditu.

Mezua argia da: lurraldea ez litzateke lehia askearen mende utzi behar, eta politika publikoek erdigunean jarri beharko lituzkete gardentasuna, kontrola eta herritarren ikuspegia.

 JONE GARTZIA GERRA

Zalantza izpirik gabe, energia berriztagarrien auzia ertz ugari-koa da. Hamaika korapilo ditu gaiak, nondik begiratzen den, eta ez dira, inondik inora, askatzen errazak. Energia berriztagarrien zentralek ingurunean eragina dutenik inork gutxi ukatu dezake argudio zientifikoei helduta. Ordea, horien beharrezkotasuna eta efizientzia; non, nola, zenbat eta zein neurritan ezarri; zein helbururekin eta noren mesedetan; bidezko trantsizio ekologikora-ko egokiak diren... ez dira erpin leunak.

Nolanahi ere, eztabaidari ezin zaio muzin egin. Hasierako onespina duen EAEko Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak 27 parke eoliko eta 149 instalazio fotovoltaiko ezartzea aurreikusten du, eta enpresa pribatuen

eskariak ez dute etenik. Horien artean dago eguzki-energiaren esparruko Solaria Eguzki Sorkuntza SLU: Araban 25 eguzki-zentral ezartzeko asmoa du euskal enpresak, gehi Eusko Jaurlaritzarekin partekatuko lituzkeen beste bi. Lehenengo 25 horiek Arabako hama-bi herriri eragingo liekete eta guztira 3.455 hektarea baino gehiago hartuko lituzkete.

Proiektuok bereziki erasango duten guneetarik bat Gorbeialdea da eta, justuki, bertako herritarren artean trantsizio ekosozialaren eta energetikoaren gainean prestakuntza, informazioa eta kontzientziazioa bultzatzeko sortu zuten EHUKo zenbait akademikok Gorbeialdeko Herri Unibertsitatea (GHU). 2024ko maiatzean jarri zuten martxan, eskualdean eskala handiko hainbat

proiektu fotovoltaiko ezarri nahi dituen Solaria enpresaren eskari-olde neurrigabeen aurka agertu baina, era berean, "trantsizio ekologiko justu baterako proposamen eraikitzailea" plazaratzeko asmoz.

Horrela azaldu zuen GHUKo koordinatzaile Unai Pascualek iragan martxoaren 25ean Gasteizen egindako jardunaldietan. Bertan EHUKo Zuzenbide fakultateko katedratiko emeritu Iñaki Lasagabasterrek, Letretako fakultateko irakasle Ana Sáenz de Olazagoitiak, Jungituko Administrazio Batzarreko Naia-ra Morenok eta Pascualek berak hartu zuten parte Gorbeialdeko Herri Unibertsitatea aurkeztu eta Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialaren (EB LPS) inguruan taldeak egindako analisi tekniko eta juridikoa azaltzeko.



Gorbeialdeko Herri Unibertsitateak azterketan salatu du Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala arautzera baino proiektu eoliko eta fotovoltaikoei oztopoak kentzera bideratuta dagoela.

PLANIFIKAZIORIK GABEKO PLANA

GHUK martxoko jardunaldietan plazara-tutako txostenak argi dio: “Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektoriala ez da benetako plan bat”. Izan ere, lurralde-antolamenduaren helburua espazioa modu sistematiko, iraunkor eta demokratikoetan antolatzea da, baina bereziki energia fotovoltaikoa eta eolikoa arautzea helburu duen EB LPSean ez dute halakoren zantzurik ikusten. Arautzera eta planifikatzera baino, plana energia eoliko eta fotovoltaiakoko proiektuak “erraztera” eta oztopoak kentzera bideratuta dagoela salatu dute analisian. Are gehiago, Iñaki Lasagabaster katedrati-koak ohartarazi zuen planaren araudia “oso pobrea” dela eta jorratzen dituen alderdietako asko zalantzarriak eta legezkantapokoak dira

EAEEn 1990eko maiatzaren 31n onartu zen Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1900 legea, eta haren ondotik etorri dira Lurralde Antolamenduko Gidalerroak (LAG) eta hainbat Lurralde Plan Partzial (LPP) eta Lurralde Plan Sektorial (LPS). Horien guztien berezitasun azpimarragarriena honakoa da: EAEko administrazio guztien gainetik daudela, hots, tokiko

erakundeen eta herritar guztien gainetik inposatu daitezke. Horrexegatik da garrantzitsua antolamendurako plan izaera mantentzea. Iñaki Lasagabasterrek argudiatutakoaren arabera, aldiz, EB LPS, gaur-gaurkoz, hainbat puntutan legearen aurkakoa da.

EB LPSk ez du kontuan hartzen trantsizio energetikorako denbora-eskalarik, ez eta beste sektore batzuekin duen elkarreragina ere –nekazaritzarekin, hirigintzarekin eta bioaniztasunarekin kasu–, eta ez du ikuspegi integralik. Eperik eta baldintzarik gabeko aurreikus-

penek, GHUko kideek ohartarazi bezala, espekulaziorako ateak irekitzen dizkionte hainbat interesdunei, eskariak metatzeko eta negozioaziorako tresna gisa baliatzeko aukera ematen baitie.

Aipatzekoa da 2023ko apiriletik 2024ko urriaren hasierako onespina jaso bitartean, eguzki-zentralak eraikitze hemezortzi eskari eta instalazio eolikoak egiteko 28 jaso zituela Jaurralitzak. 2019ko agindu parlamentarioa gorabehera, EB LPSa tramitazioan dago oraindik, baina instalazio eskaerek ez dute atsedenik hartzen: enpresek atzerapena baliatzen dute planaren aplikazioa saihesteko.

GHUren iritziz, egungo plangintzak lurrraren kudeaketa esku pribatuetan uzten du, lurralde antolamenduaren inguruko Europako arauak diotenaren kontrara. EAEko egungo arauak lurraldearen liberalizazioa bultzatu dute, hirigintzatik hasi –etxebizitzaren sektorearekin– eta energia berriztagarrien sektoreraino –garapen iraunkorraren izenean betiere–. Administrazio publikoak ekimen pribatuaren esku eta, ondorioz, enpresa handien interesen esku utzi ditu bai lur-eremu publikoak eta bai sektorearen antolaketa eta planifikazioa bera ere.



JOSU SANTESTEBAN / ARGIA CC BY-SA

Analisiaren egileek diote udalak energia proiektu bereziak onartzera presionatzen dituztela eta batzuetan prebrikazioaren mehatxuarekin onartzen dituztela instalazio eskariak.

EZTABAIDA PUBLIKORAKO TRABAK

GHUren helburua da gizartea eztaba- da sakon eta zientifikorako prestatzea eta, horretarako, beharrezkoa da infor- mazioa eskuratu ahal izatea eta berau irisgarria eta ulergarria izatea. EB LPSa, ordea, ez da dokumentu autonomo eta irisgarria: planaren edukiak dokumen- tu informatiko konplexuetan banatuta daude, apenas kontrolerako abagune- rik gabe moldatu daitezkeenak. Horrek zalantzan jartzen du planaren beraren gardentasuna eta balio juridikoa.

Ez hori bakarrik, eragile sozial eta po- litikoek aurkeztutako 4.000 alegazioek ez dute inolako erantzunik jaso, ezta- baida publiko sendo eta koherenterik sustatu nahi ez den seinale. Bestalde, instalazio eoliko eta fotovoltaikeen era- gina jasoko duten udalen parte-hartzea hutsaren hurrengo del aipatu dute GHUko kideek, kontsultara mugatuta daudelako. Horietariko asko biztanle eta baliabide urriko udalak dira eta apenas dute esku-hartzeko gaitasunik.

IRIZPIDE ILUNAK

Eguzki energia edo eolikoa ustiatzeko zentralak non ezarri zehazteko, Eusko Jaurlaritzaren planak lurzoruen gaita- sunen araberrako banaketa ezartzen du. Zenbait aldagairen arabera, lur-eremu bakoitzak duen harrera-gaitasuna han- dia, ertaina, txikia edo oso txikia izan daiteke. Zehazki, bi dira aldagai horiek: lehenengoa, ustiari beharrek baliabi- dea egotea lekuan -alegia, haizea edo eguzkia- eta, bigarrena, ingurumen sen- tsibilitatea. GHUK salatzen du aldagaien barneko irizpideak aldakorak eta nahi- koa argiak ez direla eta, horrenbestez, kontrolatzen zailak.

Gaitasun eremuetan aukeratuta- ko kokapen eremu (AKE) deiturikoak



LUIS JAUREGATZIO / FOKU

Azterketaren arabera, energiarena sektore estrategikoa da eta euskal botere publikoek sektorearen gaineko kontrol eraginkorra izan beharko lukete. Argazkian, erakunde publikoetako eta enpresako ordezkariek Haizea Wind dorre eolikoen fabrikaren inaugurazioan, 2018an.

Gorbeialdeko Herri Unibertsitatearen iritzi- z, egungo plangintzak lurraren kudeaketa esku pribatu- etan uzten du, lurralde antolamenduaren inguruko Europako arau- ek diotenaren kontrara

zehazten ditu EB LPSak, hau da, insta- lazio eoliko zein fotovoltai- koentzako lurzorua- ren erreserbak, hiru eska- latan

banaturikoak: handia, ertaina eta txikia. AKEetan eskala handiko zein ertaineko instalazioak eraikitze- ko irizpideak ezar- tzen dira, eta eskala txikikoek apenas dute mugarik. Eskala eta gaitasun mai- la gorabehera, azpimarratzekoa da EB LPSak gaitasun eremutzat jotzen duela bazter- tze eremutik kanpo dagoen lur- eremu oro, hau da, lurzoru urbanizae- zin guztia, babestutako gunek eta bizitegi- areetatik 500 metroko erradioak salbu.

Paisaia-azterketetan baliatzen diren ikus- arto deituriko unitate batzuen ara- bera, Jaurlaritzak saturazio- indize bat ezartzen du, paisaia gehiegi ez kargatze- ko. Indize horiek errealitatearekin bat egiten ez dutela ohartarazi du Ana Sáenz de Olazagoitia irakasleak, zaharkituta daudelako edo aerosorgailuen kasuan balekoak ez direlako, nabarmen gain-



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK , OSPAIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

Proiektu fotovoltaikoen eta eolikozen zein AHTren aurkako elkarretaratzea, Gasteizen, 2024ko uztailean.

ditzen baitituzte ikus-arroen mugak. Gainera, irizpide horiek ere planaren bertsio desberdinetan aldatu egin direla eta gehiago zehaztu beharko lirakeela uste du.

Arabako erdigunea da, zalantzarik gabe, EB LPSak gehien erasandako lurraldea: AKetako 149etatik 135 bertan daude, 3.626 hektarea orotara. Horrek lurraldearen ustiapenean desoreka larriak sortzen ditu, eta eragin handiagoa du biztanleria gutxiko udalerrietan eta babes eta baliabide urriko erakunde txikietan. GHUK salatzen duenaren arabera, udalok plan bereziak onartzera presionatzen dituzte eta kasu batzuetan prebrikazioaren mehatxupean onartzen dituzte instalazio eskariak.

ADMINISTRAZIOAREN ARBITRARIOTASUNA

GHUren arabera, EB LPSean badira beste zenbait irizpide eta kontzeptu egoki zehaztu gabeak. Esaterako, lurralde antolamendurako planek eta legeek lurzoruaren antolamendu-kategoriak zehaz-

Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak zaku berean sartzen ditu, esaterako, 10 hektareatik gorako eguzki-zentralak eta 50 ibilgailu baino gutxiagoko aparkalekuak

ten dituzte erabilera matrize baten bidez. Horren barnean, A eta B motako zerbitzu instalazio tekniko ez-linealak zehazten dira, lurraldean omen duten eraginaren arabera. A motakoek B motakoek baino eragin handiagoa izan bide dute, baina EB LPSak zaku berean

sartzen ditu, esaterako, 10 hektareatik gorako eguzki-zentralak eta 50 ibilgailu baino gutxiagoko aparkalekuak. GHUren arabera, horrek agerian uzten du "administrazioaren arbitrariotasuna", ez baitu inolako argudiorik ematen instalazioak talde batean zein bestean sartzeko.

Zehazki, planak lehen taldean sartzen ditu 50 plaza baino gehiago hartzen dituzten aparkalekuak; edateko ura arazteko eta tratatzeko instalazioak, urtegiak edo ur-biltegi handiak; energia elektrikoko zentralak; 100 m²-tik gorako azalera duten transformazio-estazioak; gasa biltzeko edo ekoizteko zentralak; eta hondakin solidoak tratatzeko araztegiak eta ingurune fisikoan antzeko inpaktua duten beste instalazio batzuk. Bigarren multzoan, oster, satelite bidezko irratia, telebista eta komunikazioa igortzen eta hartzen duten dorreak, antenak eta estazioak kokatzen ditu; itsasargiak, irrati-faroak eta antzeko inpaktua duten beste komunikazio-instalazioak; 50 ibilgailu baino gutxiagorako

aparkalekuak; eta aerosorgailuak eta energia berriztagarrien beste aplikazio batzuk (hidroelektrikoa, fotovoltaikoa, geotermia eta antzekoak).

Aparkalekuen eraikuntzan tamaina hartzen da kontuan A edo B motakoak diren zehazteko, baina energia-ekoizpenarekin lotutako instalazioek ez dute muga bera: instalazio eoliko, hidroelektriko, fotovoltaiako eta geotermiko guzti-guztiek dute B motako izendapena, hartzen duten hedadura gora-behera. Iñaki Lasagabasterrek azaldu-takoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak 2019an LAGen aldaketa bat egin zuen instalazio fotovoltaiakoak B motako barruan sartzeko, baina bai Arabako Foru Aldundiak eta bai Eusko Jaurlaritzak aurretik instalaziook A motakoak izan daitezkeela aipatu izan dute zenbait txosten teknikan, hauen eskala eta hartzen duten lur-eremua kontuan hartuta.

LEHIARIK GABEKO "LEHIAKORTASUNA"

GHUren txostenaren arabera, instalazioak ezartzeko lurren esleipena ez da benetako lehiaren bidez egiten: "Eska-ria lehenengo betetzen dutenek oku-patuko dute lurraldea". Horrek aukera ematen dio aktore bakar bati -aurretik jada lur-jabeekin akordioak itxi ditue-nari- proiektua eskusiboki garatzeko.

Bestalde, gardentasun eta instituzio publikoen kontrol ezak ere kezka sortzen ditu, izan ere, badira hainbat eskari berriki sortutako enpresek eginikoak, edota bazkide bakarreko enpresenak. GHUren arabera, horrelakoek esleipenak esku gutxitan kontzentratzea eta etorkizuneko espekulazioa ezkatutzea ekar dezakete.

Ikerlarien esanetan, administrazio publikoen funtzionamenduaren gardentasun-printzipioak sektore bakoitzean esku hartzen duten enpresen nortasuna ezagutzea eskatzen du, are gehiago energia bezalako sektore estrategiko batean: "Ez da onargarria energia bezalako sektore estratagiko bat enpresa handien eta inbertsio-funtzen mende geratzea, euskal botere publikoek sektorearen gaineko kontrol eraginkorrik izan gabe".

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Gorbeialdeko Herri Unibertsitatearen mezua argia da: energia berriztagarrien hedapenak ezin du paisaia, lurral-

Eragile sozial eta politikoei aurkeztutako 4.000 alegazioek ez dute inolako erantzunik jaso, eztabaida publiko sendo eta koherenterik sustatu nahi ez den seinale

de-antolaketa eta herritarren ongizatea bazter utzi. Lurraldea ez litzateke lehia askearen mende utzi behar ezein merkantziaren gisara, eta politika publikoek erdigunean jarri beharko litzukete gardentasuna, kontrola eta herritarren ikuspegia.

Horretarako, zenbait proposamen plazaratu dituzte EB LPSren inguruan. Lehena, kontraesankorra badirudi ere, epe zehatzeko moratoria bat proposatzen dute, trantsizio ekologiko justu, ekitatibo eta eraginkorra bermatzeko. Bigarrenik, lurraren antolamendua interes pribatuaren esku ez uzteko eta esku-hartze publikoa sustatzeko energia enpresa publiko baten sorrera proposatzen dute.

Beste aldetik, EB LPSean jasotako zenbait irizpide hobeto zehaztea exijitu dute, hala AKEak nola saturazio-indizeak, betiere irizpide tekniko eta gardenen arabera. Era berean, zuzenean erasandako udalerrietako instituzio publikoak kontuan hartzea eskatzen dute; izan ere, GHUren arabera, orain arte udalek kontsultarako baino ezin izan dute prozesuan esku hartu eta, kasu askotan, baliabide urriko udalek plan bereziak onartzera behartuta ikusi dute euren burua, prebrikazioagatik salatuak izateko mehatxupean.

Horregatik proposatzen dute horrelako proiektuen eragina pairatuko duten udalerriekin partaidetza zuzena sustatzea, bai eta herritarrena ere. Onartezintzat jotzen dute parte-hartze soziala enpresa pribatuaren eraginarekin ordeztzea eta hauek politika publikoetan eragin ahal izatea ontzat ematea.

GORBEIALDETIK ARABA OSORA

2025eko ekainaren 11n Arabako Herri

Unibertsitatearen sorrera iragartzen zuen gutuna argitaratu zuten hedabide honetan zein Arabako beste batzuetan GHUaren bultzatzaile Unai Pascualek, Ana Sáenz de Olazagoitiak eta Iñaki Lasagabasterrek. Sinatzaileek adierazitakoaren arabera, Gorbeialdeko Herri Unibertsitatearen dinamika martxan jarri zutenetik "Arabara modu kaotikoan eta meteoritoak bailiran, zentzugabeko proiektu energetiko ugari jaurtitzen jarraitzen dute". Horregatik erabaki dute pauso bat aurrera eman eta beste fase bat irekitzea Arabako Herri Unibertsitateari (AhU) bide emanez.

"Akademia eta mugimendu sozialaren arteko elkarlana areagotzeko helburuarekin, Arabako esparru naturala aintzat hartuta baina Euskal Herri osorako instrumentu izateko anbizioarekin" sortu dute AhU, eta xedetzat du trantsizio ekosozialaren inguruko eztabaidari "ahalik eta modu irekienean" heltzeko esparru plurala sortzea. Horretarako, Euskal Herriko askotariko diziplinatarako adituekin eta "esparru ideologiko ezberdinetako arituekin elkarlanean" aritzeko asmoa azaldu dute, "laborategi bizia" izan dadin. ●



Koop

mitxelena

MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak

LRQA
CERTIFIED
AS 9100

ISO 14001

LRQA
CERTIFIED
ISO 9001

Ezlazio industrialdea 21, HERNANI

☎ 943 55 25 12 - 16

✉ info@talleresmitxelena.eus

🌐 www.talleresmitxelena.eus

“ ”

Enpresak 200 pertsonari ematen die lana, baina lur horiek berreskuratuta 1.400 familia biziko lirateke

Marylen Serna, Kolonbiako aktibista

Komite Internazionalisten bidez, gure artean izan dugu Marylen Serna (Cajibío, Cauca, 1965) Kolonbiako borrokalari soziala. Bizitza militantea lau ardatzen inguruan garatu du: nekazarien eskubideak, emakumeenak, lurraldearen defentsa eta gatazka armatuaren erresoluzioa. Borrokatzen duen proposamena honetantxe laburtzen du: kultura eta etnia askoko lurralde bat, non nekazariak eta pertsonak bizitza bat garatu ahalko duten.

 RUBEN SANCHEZ BAKAIKOA  DOSPORDOS / ARGIA CC BY-SA

Marylen Sernak badu zer kon-taturik pinu eta eukaliptoen esplotazioa maite ez dutenentzat, eta, oro har, lurraren alde borrokatzen direnentzat. Komite Internazionalistako kideek Sernak Euskal Herrian egindako bisitan ohartarazi dute hemengo lantegi batzuk ere Kolonbiako estraktibismoaren parte direla, multinazional horientzat egiten baitute lan.

Cauca departamentuan, Sernaren jaio-terrian, kalteak eragiten dituen multinazional bat da Smurfit Westrock. Enbalajerako kartoigintzan mundu mailako enpresa handiena da egun, Irlandako Smurfit Kapparen eta AEBetako Westrocken fusioaren ondoren eratutako transnazional erraldoia baita. Euskal Herrian ere lantegiak ditu, lurretan (Biz-

kaia) eta Zangozan, Cordovillan eta Agoitzen (Nafarroa); Komite Internazionalistek oroitarazi dutenez, 800 langiletik gora ditu lau fabrika horietan eta milioika euroko irabaziak izan ditu, azken datuen arabera.

Cauca departamentura duela 50 bat urte iritsi zen multinazionala, eta Sernak ziurtatu duenez, lehen unetik kontrako borroka egin zioten, lur gehiago erosi edo bereganatu ez zitzan: “Borroka hori ez genuen galdu, baina ez genuen aurrera egitea lortzen”. Enpresak beste lursail bat erosi orduko, komunitatea aurrez aurre zuten, makinaria edo laboreak erretzen, zuhaixkak erauzten... Horrela eman zituzten 1980ko, 1990eko eta 2000ko hamarkadak. Enpresak, orduan, taktika aldatu zuen eta lurra erosi beharrean, aloka-

tzen hasi zen, gutxienez lau uztatarako, hau da, 30 urterako. Pinu eta eukaliptoen haziak edo landaretxoak banatzen zizkion jendeari, eta bakoitzak bere lurretan landatzen zituen. Horregatik, azken hamar urteotan komunitateak ere taktikak aldatu ditu, eta alokatutako lur horiek okupatzea zaila denez, lur horiek “zuhaitzetatik desokupatzen” dituzte.

INSTITUZIOEN BABESA

Anthony Smurfit, enpresaren sortzailearen biloba eta gaur egungo konpainiaren zuzendari nagusia, Europar Batasunako Legebiltzarreko industria mahaiaren kide da egun. Cauca eta Kolonbian ere enpresak alderdi politiko guztietako kanpainak finantzatzen laguntzen du, eta harreman estuak dituzte gobernu eta



udaletan: administrazioari ingurumen politikak diseinatzeko lagundu diote, eta basoak babesteko subsidioak bereganatzen dituzte, Sernak ziurtatu duenez. Beren burua enpresa “berde” gisa agertzen dute, ekologikoa, jasagarria... Baina, gero, “ur inguruen” legea ez dute betetzen: Kolonbiako legediak dio ur iturri baten 30 metroko inguruan ezin dela erein. Baina lurraldearen aldeko borroka mugimenduko kideek egiaztatu dute lege hori bortxatu eta iturburu asko agortu dituztela.

Gauzak horrela, enpresak bere alde ditu poliziaren eta armadaren baliabideak: istiluen kontrako eskudroi bereziak, lurraldearen militarizazioa, droneak... giza eskubideen urraketak etengabeak dira, Sernak kontatzen duenez. Horrez gain, talde juridiko indartsuen bidez, mehatxuak egiten dituzte, enpresaren aldeko komunitateak diruz laguntzen dituzte eta beren langileak

ere enpresaren alde guztiz lerrokatu eta lehen lerroan kokatzen dituzte: lursail bat askatzeko desokupazio bat hasi orduko, aurrena langileak joaten dira kontra egitera. Maiz, langileak komunitate kideak dira, senideak, auzolanetako kideak; horrek komunitatea hausten du eta tentsio handiak sortzen ditu.

Caucako lurren defentsan ari direnak gobernuarekin mintzatu dira eta handik adierazi diete badutela borondatea lurrrak erosi eta komunitateko nekazariei banatzeko. Dena den, enpresa da erabakitzen duena lur horiek saltzeko eskaintzen dituen edo ez, eta oraingoz behintzat ez dute halakorik egin.

Lurrrak defendatzeko ekintza zuzenak 1.200 familia daude sartuta borroka horretan, modu klandestinoan, baina haietarikoa bederatzi pertsonak –Serna da bat– aurpegia erakutsi dute hedabideetan. Irlandara joan ziren enpresaburuekin hitz egitera, eta bertan jaso zuten

Enpresak landatu berri zituen 125.000 zuhaixka erauzi zituzten aktibistek; enpresak ez zuen beste lurrik erosi harrezkero

erantzuna zera izan zen: “Kolonbiako gure ordezkariak esandakoa berresten dugu geuk ere”.

Baina komunitatean etsi gabe dihardute lanean enpresak lur gehiago lortu ez ditzan, ez erosita eta ez alokatuta. Duela hiru urte, enpresak erosi berria zuen makina erraldoi bat, zuhaitzak ebaki, azala kendu, moztu eta kamioian sartzen zi-

tuena, eta iritsi zen egunean bertan erre zuten. Bestalde, gobernuak II. Mundu Gerraren ostean alemaniar nazi batzuei eman zizkien lur batzuk, eta pertsona horiek alde egitean esan zuten lur horiekin edozer egitea baimentzen zutela, nekazariei ematea izan ezik. Sernak kontatu duenez, duela sei urte, egun batetik bestera, 350 hektareako lursail horretan agertu zen enpresa. Jendea galdezka hasi ea alokatua zen-edo, eta jakin zuten ezetz, enpresak erosi zuela. Itxaron zuten landatu zezaten, eta bukatu zuten eguneko gauean bertan, 1.200 bat pertsona lursailan sartu, eta landatutako 125.000 zuhaixkak erauzi zituzten. Enpresak ez zuen beste lurrik erosi harrezkero.

2021eko uztailaren 28an, berriz, enpresaren lurretan sartu eta komunitatearena zena berreskuratzen hasi ziren, zuhaitzak moztzen, animaliak sartzen landareak jan zitzaizuten, landareak erretzen... Horren harira, abuztuaren 2an Poliziaren ESMAD eskadroiak nekazari bat hil zuen, Sernak salatu duenez. Joan den otsailean beste kide bat hil zen zuhaitz bat gainera erorita, eta martxoaren 30ean beste ekintza batean armadak gogor jo zuen, tanketa eta guzti; hedabideetan zabaltu zuten nekazariak gerrillariak zirela. Egiaztatze misio bat bultzatzen ari dira, pertsona horiek nekazariak zirela frogatu dadin.

HERRIAREN BURUJABETZA ETA AUTODETERMINAZIOA HELBURU

“50 urte hauetan, zein izan da enpresa honen inpaktua lurraldean?”, galdetu diogu Sernari. Iturburu asko agortu dira eta lurrak kaltetu, besteak beste. Adibide gisa jarri du lursail bat, hamar familiaren artean erosi zutena: bost urte eman dute lur hori emankor bihurtu nahian, izan ere, urte luzez pinu landaketak egin eta agrokimikoak bota ondoren, lurra antzua da, eta denbora behar du berriz emankorra izan dadin. “Prozesu gogorra eta luzea izan da, bost urte pasa dituzte familiek elikagairik ezin lurretik atera, baina ez dute beste aukerarik”. Halere, Sernak baieztatu du inpakturik handiena lurren pilaketa izan dela, alegia, lur gehienak esku gutxitan geratzea.

Gaur egun, sei senideko familia batek batez beste 1,3 hektarea dauzka Cojiban, eta “horrekin sei lagun bizitzea ez da bideragarria”, Sernak gaitzetsi duenez. Enpresak, berriz, 2.970 hektarea dauzka jabetzan, eta horri gehitu behar zaizkio alokatzen dituen lurrak. Horregatik, komunitateen borroka da lur horiek bir-

banatzea. Familia askok landatik hirietara jo behar izan dute, eta lantegian lan egiten duten pertsonak beren identitatea galdu dutela azaldu du Sernak: “Zer den nekazaria izatea, autonomia izatea, lurretik bizitzea... soldatapeko langile bihurtzen dira”. Bestalde, lurren pilaketa horrek elikadura burujabetzan eragin die: “Lehen gure eskualdea elikaduraren aldetik jasangarria eta burujabea zen”.

Maiz entzuten dugu enpresariak lanpostuak sortzen dituztela, baina Sernak ikuspegi hori kritikatu du: “Enpresak 200 pertsonari ematen die lanpostua; guk lur horiek berreskuratu eta komunitateei itzuliko bagenizkie, 1.400 familia biziko lirateke era autonomoan, eta lurraldean autodeterminazioa eta autonomia handituko lirateke”. Hori dela eta, bi jatorrizko herriren eta hamahiru nekazari erakunderen arteko batasuna egin zuten, eta hortik ari dira borroka hau bideratzen.

Enpresa kexu agertu ohi zaie: “Zergatik gu? Zer egin dugu gaizki? Zer du-

zue gure kontra? Zergatik izan behar dira gure lurrak eta ez beste batzuk?”. Multinazionalak argudiatzen du 50 urte daramatzatela han, eta horrek “eskubidea” ematen diela monolaborantzarekin jarraitzeko. Borrokalari sozialek, berriz, zera erantzuten diote: “Nahiko denbora eman duzue dagoeneko, bada garaia lur horiek itzul ditzazuen”.

Beren nahia, funtsean, hori da: “Lurralde bat, kultura eta etnia askokoa, non basoak zaindu, lursailak, urak eta lurrak eurak ordenatu, eta elikagaiak eskuratuko genituzkeen... Lurralde horien autodeterminazioa gauzatu eta bizitzarako lurralde bat sortu nahi dugu”.

BAKE PROZESUEN SAIAKERAK

Kolonbian izan diren gerrilla gehien-gehienak egon dira Caucan: M-19, Quintin Lame, ELN, FARC-EP... Bestalde, talde paramilitarrak eta gobernua (armada eta polizia). Eta triangulua ixteko, komunitateak eta herri mugimenduak; hor



CAUCA

Cajibiok, Marylen Sernaren jaioterriak, *haize-kutxa* esan nahi du eta *Kolonbiako musika txokoa* esan ohi zaio, musikari askoren sorlekua izan baita. Bertan, 40.000 pertsona bizi dira, nasa, misak, yanacona eta beste hainbat jatorrizko herri, afro-kolonbiarrak eta zuriak, haietariko asko nekazariak. Sernaren familia bera da herriko historiaren erakusgarri: aita nasa herrikoa, amama zuria, ama nekazarien lider bat, eta beren etxea komunitatearen bilgune zen. Han antolatzen ziren *mingak* (auzolanak), festak eta jai erlijiosoak. Familia handia ziren: amaren aldetik, guztira, hamahiru neba-arreba, eta bakoitzak beste zazpi edo zortzi seme-alaba izan zituen.

Cajibio Cauca departamenduan dago, herritarren arteko antolaketa maila handiko lurraldean. 1992an, esaterako, 500. urteurrenaren ospakizun famatua izan zenean, Caucatik bideratu ziren orduko borrokak, espainiarren etorreraren kontra: “Gobernuak festa handi bat egin nahi zuen eta Caucatik emakumeek, jatorrizko herriek, afroek eta nekazariak kontra egin genion”. Ospakizuna galarazteko errepide nagusia (Panamerikarra) eten zuten urriaren 12an eta errepresio handia jasan zuten horregatik. Hain zuzen, errepidea etetea izan da historikoki beren arma nagusietako bat. 1999an, berriz, lurra berreskuratzearen aldeko borrokan 26 egunez gelditu zuten trafikoa, gobernuarekin hitzarmena sinatu arte.

Horren aurrean, betiko familia boteretsuak bizi izan dira: Valencia, Negret, Iragorri eta Mosqueratarrak. Erlijio-kongregazio nagusiek ere badituzte komentuek bertan, eta esklaboen salerosketaren gune nagusietako bat izan zen Cauca, *Puente del humilladero* izeneko zubian, Sernak zehaztu duenez. Gaur egun, jatorrizko herritar zein pertsona afro askok familia boteretsu haien abizen berak dituzte, esklaboek beren jabeen abizenak hartu behar zituzten eta.



ANTONIO CASCIO / CTXT CC-BY-NC

kokatzen da Sernaren jarduna, eta militantzia horretatik bake prozesuetan parte hartu izan du.

FARC-EP eta gobernuaren negoziatzen hasi zirenean, bake prozesua bultzatzearen aldeko mobilizazio handietan parte hartu zuen, baita sortu ziren foroetan ere. Gutxiatik izan bazen ere, bake ituna berresteko plebiszitua galdu zuten, eta ondorengo gobernuak ez dute bete nahi izan, Sernak gogorarazi duenez. Horrek ekarri zuen desmobilizatu ziren gerrillarietako batzuek berriz armak hartu izana.

ELNrekin bake prozesua izan zenean, *Mesa Social para la Paz* prozesua bultzatu zuen Sernak, eta *Consejo Nacional de Participación y Convivencia*-ko Batzorde Nazionalako kide izan zen. Azken prozesu horretan, mugimendu sozialen parte hartzea handiagoa izan zen: 82 topaketa egin zituzten, eta guztira 90 sektore ekonomiko eta sozial zeuden ordezkakuta. Une honetan negoziazioak etenda daude, eta Sernaren ustez gobernuarena da ardura nagusia: “Horrelako prozesuetan desmobilizazioa eta armagabetea bakarrik bilatzen dituzte, eta ELN bezalako talde bat ez da bide horretan sartuko”. Kolonbiarraren iritziz, horrelako prozesuek balio behar dute gatazkaren sustraietan dauden gizar-tearen arazoak konponbidean jartzeko. “Pena izan da, gobernu aurrerakoi honekin aukerak egon zitezkeela uste baitzen”, dio Sernak. Azkenean, ELNk negoziazioak utzi zituen eta gobernuak hori baliatu zuen su etena haus-tekotik, Sernak nabarmendu duenez.

HERRITARRAK TALDE ARMATUEN ERDIAN

Gerrillekiko harremana ezberdina izan da lehen eta orain. Lehen herri mugimenduen borroka eta gerrillena osagarriak ziren, Sernak azaldu duenez: batzuk arlo sozialean jarduten ziren, besteak, militarrean. Orain hainbat motatako talde armatuak daude, eta Caucan arazoak dituzte. Herri mugimenduetatik autonomia defenditzen dute, baina talde armatu berriek lurraldearen erabateko kontrola ezarri nahi dute, ekonomikoa, soziala, antolaketa mailakoa, legez kanpoko laboreak erabiltzen dituzte, umeak errekrutatu... Herri mugimenduak beren mende nahi dituztela dio Sernak, eta lortu ezean helburu militar bilakatzen dira hainbatetan.

Paramilitarrak, berriz, bortizkeria mailan lehen bezain izugarriak ez direla dio Sernak, baina ez dira desagertu eta gizartea kontrolatzen jarraitzen dute ekonomikoki. Sernaren iritziz berrantolatzen ari dira: kide berriak lotzen eta militarki berarmatzen. *Clan del golfo* delakoa da hedatuena, eta Sernak kontatu duenez: “Hainbat enpresarekin loturak eta negoziak dituzte, eta jarraitzen dute meatzaritza ilegalen, narkotrafikoan eta *gota a gota* negoziok; interes altuko kredituak ematen dituzte eta kobratzera pasatzen dira motorrean egunero, maiz armaturik”. Talde armatu horien erdian bizi dira Caucako herritarrak, euren lurra defendatzeko borrokari eusten. ●



Maider Arruti

“Gauzak egin eta kalera atera nahi nuen, baina ezin nuen”

Gazte batek etxetik atera eta psikologoarenera joateko bizi dituen beldurrak eta barne gatazkak lantzen ditu ‘Barruko dardara’ film laburrak. Maider Arrutik (Errenteria, Gipuzkoa, 2003) sortu du, eta agorafobia nola bizi duen ikusaraztea du helburu. Bere bizipenetan oinarrituta dago, eta nabarmendu du film laburrak lagundu diola babestuta sentitzen.

 OLAIA L. GARAIALDE

Beldurra eta urduritasuna. Ozen entzun daitezke *Barruko dardara* film laburreko protagonistaren bihotz taupadak. Agorafobia daukan pertsona batek etxetik ateratzeko bizi ditzakeen barne gatazkak islatzen ditu filmak. Maider Arrutik ikus-entzunezko errealizazioa ikasi du, eta film laburraren bidez, bere esperientzian oinarrituta agorafobia zer den azaldu nahi izan du: “Infernu bat izan da. Ezin da hitzez azaldu zer izan den niretzat”.

Ihes egitea zaila den lekuetan ego-teak piztu dezakeen beldurrak eragin-dako antsietate mota bat da agorafobia. Horrez gain, estutasun krisi batean laguntzarik ez izatearen ideiak ere eragin dezake. Beldurrarekin harreman zuzena dauka, eta iritsi daiteke momentu bat non beldurra hain den handia, ezen etxetik edota gelatik ateratzeak beldurra eman diezazukeen. “Eskubaloian,

“Arazo hau hasieratik nola bizi dezakezun ikusarazi nahi nuen, ez soilik ondo zaudenean”

antzerkian eta beste gauza askotan izena eman nuen, baina ez nintzen joaten beldur nintzelako. Konturatu nintzen ez zela normala neure buruarekin horrenbeste borrokatu behar izatea etxetik ateratzeko”, kontatu du Arrutik.

Hasieran, beldurra sentiarazten zion ahotsa “txikia” bazen ere, poliki-poliki indarra hartzen joan da: “Hasieran, ez nintzen konturatzen edo ez nuen horretan arreta jarri nahi. Gerora, hasi nintzen beldurrari begiratzeko, kezka piztu zitzaidan”. Beldurrak baldintzatzen zuela ikusi zuenean, Interneten bilatzen

hasi, eta Agifes elkarteak aurkitu zuen. Sufrimendu psikosozialari arreta emateko elkarte bat da: “Banekien laguntza behar nuela, baina ez nengoen prest. Behin baino gehiagotan eskatu nuen hitzordua, baina ez nintzen joaten”.

Beldurra areagotzen joan zen, eta geror eta zailagoa egiten zitzaion etxetik ateratzea: “Instagramen besteen bizitzak nirearekin konparatzen nituen, eta nireak ez zeukan zerikusirik. Gauzak egin eta kalera atera nahi nuen, baina ezin nuen”. 21 urte zituenean, uda ostean, zerbaitek klik egin zion barruan: “Oso gaizki pasa nuen udan, ez nintzen etxetik ateratzen, eta ikusten nuen ez neukala niretzat 21 urterekin nahi nuen bizitza”. Horrek eman zion elkartera jotzeko adorea.

Elkartean laguntza eskatu aurretik, ingurukoek ez zekiten zer sentitzen zuen, eta Arrutik ez zekien nola adierazi: “Alferra nintzela esaten zidaten eta



"Barruko dardara" film laburreko fotograma. "Filma antzeztu zuenari [Paula Soroetari] besarkada bat eman, eta hunkitu nintzela esan nion".


beti nengoela ohean edo sofan etzanda. Ez zuten ulertzen". Film laburra sortzea izan da modu bat adierazteko nola sentitzen den. Nabarmendu du horri esker jendeak orokorrean ulertu egin duela zer sentitzen duen: "Uste nuen oso faltsua geratuko zela, baina grabatzen hasi ginenean negarrez bukatu nuen. Oso gogorra egin zitzaidan, nire bizitza delako. Antzeztu zuenari [Paula Soroetari] besarkada bat eman, eta hunkitu nintzela esan nion". Horrez gain, beste pertsona batzuk identifikatuta sentitzeko lagungarria izan da: "Filmari esker ikusi dut ez nagoela bakarrik eta arazo bera daukan jende gehiago dagoela. Horregatik uste dut besteentzat ere lagungarria izan daitekeela".

SORTZEN JARRAITZEKO PREMIA

2021ean, ospitalean zegoelarik hasi zen gidoia idazten, eta 2025eko hasieran grabatu zuen: "Ez nuen kalera aterahi grabatzera, baina ilusioak eta film laburra egin nahi izateak bultzatu ninduten". Hasieran, eguneroko bezala hasi zen agorafobiaren ingu-

ruan idazten, baina gerora ikusi zuen errepresentazioa falta zela: "Ez nuen informaziorik aurkitzen, eta sentitzen nuen ahotsa eman behar zaiola beldur honi". Gainera, iruditzen zaio liburutetan, filmetan eta bestelako euskarrietan ez dela agorafobiaren prozesu osoa ikusten: "Arazo hau hasieratik nola bizi dezakezun ikusarazi nahi nuen, ez soilik ondo zaudenean".

Gaineratu du agorafobia ez dela desagertzen. Alegia, momentu batzuetan indar "handiagoa" hartzen duela eta beste batzuetan "txikiagoa", baina "beti" dagoela present: "Ilusio handia dudanean, ilusioak irabazten du". Momentu zailetan aldiz, agorafobia ateratzen da: "Atsedean mentala behar izaten dut, eta horretarako, etxean bost egun itxita egon. Zer gertatzen da hori egiten badut? Gehiago kostatzen zaidala etxetik ateratzea. Ematen du berriz zuloan zaudela; horregatik, agorafobia egunero borrokatu behar dugun gauza bat da". Bizipen horiek islatu nahi ditu hurrengo film laburrean. Dagoeneko gidoia lan-tzen ari da. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

"Birikak. Normalean ez diet garrantzi handirik ematen, baina antsietatearekin konturatu naiz birikak oso garrantzitsuak direla arnasketa lasaitzeko. Nire birikek indar handia daukate lasaitzeko eta arnasketa kudeatzeko".

PAPE NIANG. HASIERA BERRI BAT



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Duela sei urte argitaratu zuen ARGIAk Pape Niangen bizitzaren kontakizuna. Mikel Garcia Idiakezek egin zuen liburua. Duela gutxi argitaratu da bigarren argitalpena.

Pape Niangen kontakizunak 2025ean ere aktual

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Inor ez da ilegala. Ez gara esateaz nazkatuko. Baina gaur ez natorkizu kamisetak eta poltsak saltzera, irakurle, mezua kalean zabaltzeko eta Mbolo elkarteari diru apur bat emateko balio duten arren, ez baitugu slogan batean geratzerik nahi; bizitzak baitaude mezu honen atzean. Paperena bezalako milaka bizitza. Pape Niang-en bizipenak argitaratu genituela (*Pape Niang. Hasiera berri bat* / Mikel Garcia Idiakez) sei urte dira eta bigarren argitaraldia du liburua 2025ean.

2019 hartatik hona aldaketa ugari bizi izan ditu liburuaren protagonistak. Onak eta txarrak. Jada ez dabil Arteako nekazal kooperatiban, eraikuntzan aritu da lanean, Bilboko portuan logistikan... Bilbo ere ez du urte guzti hauetan

bizitoki bakar izan, mugitu zen Gasteiza, Marsellara, Avignonera, Bordelera... eta itzuli da berriz ere Bilbora. Hil aurretik bisitatu ezin izan zuen aita go-goan, kontatu digu ezkondu dela tarte honetan, hainbestetan ukatu eta amestutako paperak lortu dituela... Aldaketa asko bizi izan dituenaren kontakizun muina, baina, ez da aldatu, liburua oso aktuala da, aktualegia. Migrazio politketan aldaketarik bada hoberako norantzan ez, behintzat; eta tamalez, bigarren argitaraldi hau beharrezkoa dugu oraindik. Pape sei urteotan hitzaldiak emanez ibili da, liburua aurkezten han eta hemen, bere bizipenak kontatzen ikastetxeren batean ere izan da, haur eta gazteek lehen ahotsetik entzun dezaten gure begien aurrean

gertatzen ari dena, egiten ari garena.

Epilogoan azaltzen ditu xeheago Garcia etxe honetako kazetariak Pape Niangen sei urteotako mugimenduak, eta sarrera horretako lerro batzuekin itxiko dut gaurkoa, ez bainaiz ausartzen nire hitzekin kontatzera dioena. Uste baitut migrazioa bizi izan duenak bakarrik uler dezakeela eta jar diezaiokeela ahotsa benetan ondorengoari.

“Bai, aldaketetara ohituta dagoen gizona da Pape, baina hain urrun dirudien 2019 hartan garbi zuen ideia irmoa segurtasun berarekin berretsi digu 2025 honetan ere: “Noizbait Senegalera itzuliko naiz, nire herrialdera, eta ez naiz Euskal Herrira bueltatuko. Han geratuko naiz. Nire lurraldean. Eta hantxe hilko naiz”. ●



Fermin Leizaolaren mundu interesgarriak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Donostia, 1960. Fermin Leizaola 16 urteko gazteak San Telmo Museoan zegoen Aranzadi Zientzia Elkarteko idazkaritzara jo zuen, bertako Espeleologia Sailean aritzeko prest.

Ez zen San Telmora egiten zuen lehen bisita izan; 1975eko ekainean *Zeruko Argia*-rekin egindako elkarrizketa batean esan zuenez, "San Telmo Museoa ederki baino ederkiago ezagutzen nuen, tipi tipitatik hasita, zeren ia igandero museora joaten nintzen hango gauza harrigarriak ikustera". Eta museora joaten ez zenetan mendira joan ohi zen, Uliara gehienetan, harriak biltzera, mineralogiak erakarrita. Isidro Odriozola irakasleak erakutsi zion bildutakoa sailkatzen, eta aitak emandako liburuek eta laborategiko materialek ere lagundu zioten. "Hamairuren bat urte nituela lehen analisi kualitatiboak aurrera eramanez nituen".

Hiru urte geroago espeleologiak liluratuta hurbildu zen Leizaola Aranzadira. "Noiz helduko ote nintzen nire amets guztien gailurrera, hots Aranzadi Taldeko Espeleologia sailean lana egiten zutenekin harremanetan jartzera?". San Telmora hurbildu zen egun hartan ez zuen ametsa bete, Antonio Arratibel idazkariak gustatu ez zitzaion erantzuna eman baitzion: Aranzadiko Espeleologia Saila geldirik zegoen.

ARKEOLOGIAREN MUNDU BERRIA

Baina handik egun gutxira Historiaurreko Sailaren biltzarra egingo zutela eta hurbiltzeko gonbitea egin zion Arratibelek, baita Leizaolak pozik onartu ere. "Gure maisu eta jakintsu galanta den Joxe Miel Barandiaran zegoen mahaiburuan (...) biltzarre hartan beste mundu berri batetan sartu nintzela konturatu nintzen. Mundu hura ere, oso interesgarria zela pentsatu nuen", esan zuen duela 50 urte.

Espeleologia talderik ezean, arkeologia lanetan parte hartzeko baimena eskatu zien mutikoak. Hiru urte eman zituen Aranzadiko arkeologoeekin lanean,



Joxe Miel Barandiaran eta Fermin Leizaola.

tarteka indusketetan parte hartzen, baina, nagusiki, ia egunero, ikastetxetik atera eta gaueko hamarrak ingurura arte aztarnategietan topatutako objektuak garbitzen eta sailkatzen.

Eta bere ametsa betetzeari ekin zion orduan: deialdi bat egin eta hamahiru lagunekin Aranzadiko Espeleologia Saila berpiztu zuen. Jesus Elosegik abiatutako Gipuzkoako katalogo espeleologikoa osatzeari ekin zioten. 250 haitzulo baino gehiago aztertu zituen donostiarrak, eta 150 intsektu espezie jaso zituen, entomologia ere interesgune baitzuen. Baina bildutako guztien artetik, Leizaolak ez zuen lortu bi intsektu sailkatzea: "Bi hauek Kataluniako Francisco Espanol Col naturalista jakintsuari bidali genizkion. Honek zionez, espezie berri bat bilatu nuen eta izen hau jarri zion: *Aranzadiella Leizaolai*".

ARTZAINEN DEIA

Kobazuloei buruzko informazio bila,

Leizaola kalekumea inguruko baserri-tarrei eta artzainei galdezka aritzen zen, eta, Espeleologia Sail berpiztuak bere beharrik ez zuela ikusirik, etnografiara hurbildu zuen interes berri horrek. Artzantzaren egoerak kezkatu zuen bereziki: "Nongo eta zein aldaketak justifikatu lezake gure eta beste herri batzuetako bizimodu eta ohitura zaharrak erabat ahaztea, ezerezeko ilunean amildu arte? (...) Hoen bizimodua eta ohiturak, gero eta gehiago, galtzen ari ziren; hori dena galdu baino lehen, jasotzeko gogoia sortu zitzaidan". Eta bai ederki jaso ere. Iaz 4.500 bat objekturen dohaintza egin zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Gordailuari, eta 45 urtez Aranzadiko Etnografia saileko zuzendari izan zen.

Fermin Leizaola ekainaren 16an hil da 81 urterekin, espeleologiaren ametsa aserik. Baina bere jakinmina asezi-na zen, eta jakinminak zabaltzen zizkion mundu guztiak oso interesgarriak zirela pentsatzen zuen. ●

KANPAINA BUKAERA ARIKETA



JOSEBE BLANCO ALVAREZ

Hau idazten ari naizela, kanpaina bukatzeaz dugu. Datorren astelehenean jatzaldi batera pasako gara. Horrek esan nahi du hiru egunetik behin egingo dugula gazta, eta gaztek izango dituztela bospasei kilo. Uztailaren bigarren astean edo utzi egingo diogu gazta egiteari.

Aurtengoa nola joan den galdetuz gero, "ongi" erantzungo dizut. Pozik ibili gara ardiekin. Arkumeak ongi hazi dira. Orain arte dastatu ditugun gaztak goxo daude eta jendea gozatzen ari omen da. Txarretik ere izan dugu, noski. Baskillaren bat edo beste; baina azken boladan aurpegiko ekzema dugu modan: zazpi ardi dauzkagu ilunpetan – hori baita fotosentsibilitatea saihesteko modu bakarra –, aurpegiko zauriek eta gibelak are gehiago ez sufritzeko.

Dena den, zalantzarik gabe, gure egonezin handienak administrazioetatik datoz. Txikienak 25 euroko atximurra egiten du hilero-hilero, 300 urtean. TicketBai du izena. Txikia-edo, baina astuna eta tematia bezain injustua. Ogasun sailaren azpikontratazioa baino are prekarioagoa.

Aurten, Eusko Jaurlaritzaren ildo estrategikoak ere ezagutu ditugu. Badakizue: Arabar Errioxako upategi handien erreskatea, BioTEch Foods multinazionalarekin hitzartutako Donostiako haragi-laborategia, balio teknologiko handiko negutegiak eta zutikakoak – *indoor vertical farming* delakoa – EAE osora zabaltzea, nekazaritza ekologikoa eta Getariako atun gorria hazteko Itsas Balfegó kaiolen instalazioa –hau

Kataluniako Balfegó enpresarekin elkarlanean–.

Mantxan (Espainia) bizi nintzela, hango zaharrei ikasitako esaerak ezin hobeto azaltzen du ildo bedeinkatuek pizten dituzten etsipena: *vista la choza, ya sé cómo es el melonar* – "Etxola ikusita, badakigu sagastia nolakoa den". Eta hori guztia gobernu aldaketarekin egon diren goi karguetan sartu gabe...–.

Beste bat: Gipuzkoako Foru Aldundiak ingurumenarekiko konpromiso berrien diru-laguntzei ezarritako murrizketak. Ekologikoan ari garenok bete-betean harapatu gaitu murrizketak. Gure kasura etorrita, aurten errentan hartutako lursail batzuei dagozkien 1.000 euro galdua. Helegitea jarri genuen, eta erantzunak etsipenean sakontzen du –hala ere, pozik erantzun egin dutelako–: 2023 eta 2024. urtean hartutako konpromisoei aurre egiteko Foru Aldundiak 1.765.340,09 euro behar izan ditu 2024. urtean ateratako deialdian, eta 2025. urteko deialdirako aurrekontua 1.650.000,00 eurokoa dela ikusirik, nahiz eta erabakia ez den gustukoa izan ez administrazioarentzako ez eta baserritarrentzako, Foru Aldundiak erabaki du orain arte indarrean dauden ingurumen konpromisoak bere osotasunean ordaintzen saiatzea ahalik eta prorratoerik txikiena aplikatuz. Eta artzain motz honek galdetzen du: eta nora joan dira, bada, 115.340,09 euroak, nora? Izan ere, erreleboa gora eta behera gabiltzan honetan, aurten instalatutako berriek are zailagoa izango dute, ez bada enpresa batean lanean dabiltzala eta misa profesionalak izan nahi dutela...

Azkena nahi? Benga, urterokoa: artilearena. Aurten guri legokiguke 122,74 euro ordaintzea gure artilea Oñatira eramateagatik, zakuak pisatu eta husteagatik, dena Nafarroa Garaiko enpresa batek ongari biologikoak egin omen ditzan. Zati bat Foru Aldundiak ordaintzen ei du, bestea artzainok. Guk, aurten ere, ez dugu parte hartuko: gure artileak, behin konpostatutakoan, belardiei mineral eta oligoelementuak oparituko dizkie.

Karaktere kopurua agortzeaz dudanez, lantxo bat proposatu nahi dizut, lagun. Jarraian dituzu irratian entzundako bi iragarki. Saiatu horiek orain arte irakurritakoarekin uztartzen, irakurle fin hori.

"Badira galdu behar ez ditugun gauzak: gure lurra, gure ohiturak, gure kultura. Euskal Okela. Gure baserriko ganadu haragia AGB zigiluarekin. Produktu hauek kontsumituz gure ingurunea zaintzen laguntzen dugu. Egin Euskal Okelaren aldeko apustua. Adierazpen Geografikoa Babestua duen haragia. Feaderrek finantzatua, Europar Batasunak kofinantzatua eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin".

"Jasangarritasuna da biziberritzea. Berrikuntza: Euskadiko lehen sektorearekiko etorkizuna da. Gure gizartearentzat estrategikoa. Kalitatezko elikagaiak bermatzen dizkigulako, landa eremuari bizia ematen diolako eta ingurumena babesten duelako. Euskadiko lehen sektorea. Hemen etorkizuna dago. Hazi. Eusko Jaurlaritza".

Galizako sustraiekin erakutsitakoa: *mexan por nós de din que chove* – "txiza gainean egiten digute eta euria ari duela esan" –. ●



EGURRA TA KANDELA BASERRITAR EKINTZA

Egurra Ta Kandela baserritar ekintzak iritzi artikulua argitaratu zuen ARGIA n aurtengo maiatzaren 7an eta elkarretaratzea egin zuen Aldundiaren aurrean maiatzaren 15ean, Baserritar Egunean. Gai hori du aipagai Blancok artikuluan, besteak beste.

A ZE FAUNA!

ASKARI IZENA DUEN HARAGIJALE TXIKIA



IRATI DIEZ VIRTO
ARANZADIKO KIDEA

Duela egun batzuk Zeraingo mendietan nenbilela, gorpu bat topatu nuen bidearen erdian. Lehen aldia zen halakorik ikusten nuela, eta kosta zitzaidan identifikatzea. Bere tamaina txikia ikusita, kume bat izan behar zuela pentsatu nuen; baina oker nenbilen. Munduko ugaztun haragijale txikiena zen: erbinudea.

Erbinudea (*Mustela nivalis*) topatzea zaila izan ohi da, oso animalia iheskorra baita. Bere tamainak ere ez du asko laguntzen, 15-25 cm bitarteko gorputza baitu; ideia bat egiteko, eskolako estutxean eramaten genituen erregelak baino pixka bat handiagoa da. Argazkian ere konparatu liteke giltzen aldean.

Txikia izateaz gain, maitagarri itxura ere badu, belarri eta mutur txiki eta begi borobil horiekin. Baina ez zaitzala nahastu, ikaragarri ehiztari ona baita, eta asko ehiatzatzen du gainera, bere metabolismo azkarra ase ahal izateko. Harrapakinei zelatan

ERBINUDEA

Mustela nivalis

TALDEA: Ornoduna/Ugaztuna.

NEURRIA: Emeek 169-197 mm artean eta 10 bat gramo; arrek 180-258 mm artean eta 20 bat gramo.

NON BIZI DA? Basoetan eta landa eremuan.

ZER JATEN DU? Gehienbat karraskari, hegazti eta narrasti txikiak. Baina dieta oso anitza izan dezake.

BABES MAILA: "Kezka txikiko" izendatua. Ezin da hil.

egoten da, poliki-poliki hurbiltzen zaie, eta salto batekin kosk egiten die lepoan. Hortxe geratzen da zintzilik, harrapakina hil arte.

Animalia asko izan daitezke erbinudearen askari: saguak, satitsuak eta halako karraskariak, baita hegazti txikiak eta hainbat narrasti ere. Noizbehinka bere tamaina baino bost edo hamar aldiz handiagoak direnak ere akabatzen ditu, untxi eta erbiak, esaterako. Izaki azkar, indartsu eta abila dugu erbinudea.

Hainbat izen ditu animalia honek Euskal Herrian: erbinude, satandera, ogigazta... gizakiak harekiko izan dituen sinesmen eta istorioen arrasto dira. Erbinude hitza "inude" terminoarekin lotuta egon daitekeela diote batzuek, edo "erdi-un(h)ide" terminoan izan de-



IRATI DIEZ VIRTO

zakeela jatorria, erditzean laguntzen duena, hain zuzen. Berbera esan dezakegu gazteleraz duen izenarekin, "comadreja" (comadre, emagin). Ogigazta edo panikesa izena, bestalde, inguruko erromantze batzuen kalkoa da, eta usadio zahar batean oinarritzen dela uste da. Baserri eta etxaldeetan erbinudea oilategietara lapurretan sar ez zedin, ogi eta gaztarekin igurzten omen ziren sarbide eta zirrikituak, horrek animalia uxatuko zuelakoan. Beste batzuek diote bere ilajearen koloreak ogia eta gazta gogorarazten dituela.

Izenak izen, historian euskaldunok ez dugu bereziki erlazio estua izan animalia honekin, ez onerako, ezta txarrerako ere. Bere izaera iheskorragatik agian, edo ez dugulako harrapakaririk konpartitzen, eta ez delako gure ingurura gehiegi geraturatzen. Ezagutu, ordea, bai ezagutu dugu, inguru hauetako animalia ohikoa izan baita; eta hala jarrai dezala. ●

**Oraina
ETORKIZUNA
EKOLOGIKOA DA
aurrera goaz!**

**Hamar pertsonak
Hamar istorio
DOKUMENTAL BAT**



Dokumentala
ikusi



cpaen.org
navarraecologica.org

ARROSA BASATIAREN IZEN SALTSA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Loratu da. Kostata baina loratu da, bai, arkakaratsa (*Rosa spp.*). Lore arin, mehe, hegalaria itxurakoa da, arrosa bat da eta lorea ere arrosakara eta zuriaren arteko kolorea du. Urtero loratzen da lurrin fina zabalduz. Lore horiek destilatu egiten dira, ia erabat kosmetikan eta lurringintzan erabileriko diren gaiak sortzeko.

Euskal Herri osoan bizi da eta espezie mordoza dugu: tankerako ezaugarriak dituzte, ez dira berdinak, bakoitzak arantzez ederki zaintzen dute bere kasta. Xehetasun fin bat dute bereizgarri, espezie bakoitza bat. Hamairu behintzat baditugu: *Rosa agrestis*, *R. arvensis*, *R. canina*, *R. corymbifera*, *R. deseglisei*, *R. micrantha*, *R. nitidula*, *R. pendulina*, *R. pimpinellifolia*, *R. pouzinii*, *R. sempervirens*, *R. stylosa* eta *Rosa tomentosa*. Denak arkakaratsak, batzuk bakanak, beste batzuk hedatuak. Izen zientifikoe-tan moldatzen gara, baina euskarazko izenekin zikulu saltza ederra dugu.

Arkakaratsaren ezaugarri eta erabilerak nagusiak izenetan nahasten dira. Arrosaren asaba da eta maiz arrosa hori jasotzen du izenak. Beste batzuetan landarea esateko eta bere alea esateko izen bera erabiltzen da. Arantzatsua da, baita basatia ere. Geurean basatia astoarren lotzen da maiz; beste hizkuntza batzuetan izen zientifikoa tinko helduz, *Rosa canina*, “txakur arrosa” esaten diote. Hona, bere hedaduraren eta bere ezagutzaren adierazle, arkakaratsaren izen batzuk: astoarrosa, astalarrosa, basarrosa, basalarrosa, basa-arrosatze, itsularrosa, hesi arrosa, sapar-hesi, sapar-lahar edo sapalar, sasiarrosa, elorri arrosa, arrosa-elorri, larrosa jerikotarra, lahar-arrosa, otsolarra eta otsalar. Bitxi askoak ere badira: Telesforo Aranzadik Aralarren jasotako “alkaka-atza”; Retana hiztegian “alkaratz” bildua dago; Gerardo Lopez de Gereñuk 1958an *Voces alavesas*-en argitaratu zuen “arkalla”



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA CC BY-SA

izena, Akosta herrian entzundakoa, eta Umandiren 2000ko hiztegian “arkala” azaltzen dena; orain “frantziar arrosa” esaten diogunari (*Rosa gallica*) Lakoizketak “larrosa jerikotarra” esaten dio, *Anastatica hierochuntica* nahasita.

Bere alea jateko oso ona da, “Beren bixi airearekin, batere ez dire jateko tzarrak asto-arrosaren bihiak” idatzi zuen Jean Elizalde Zerbitzari-k 1932an *Gure Herria* aldizkarian. Sendagai ezaguna ere bada. Beherakoa geratzeko hartzen da, horregatik esaten ote zioten “ipurditapatzeko” Larraunen, Aranzadik bildu zuen bezala? “Andarrai” ere esaten zaio, Azkuek eta Harrietek jaso bezala; anderrai-eria sendatzen ote duelako, agian? Londresen geratu ziren Luis Luziano Bonaparteren XIX. mendeko eskuizkribu sonatuetatik jaso eta Azkuek argitaratutako “itsularrosa” izena nondik ote dator? Pio Font i Quer farmazialari katalan famatuak bere 1961eko *Plantas medicinales el Dioscorides renovado* famatuagoan dio arrosaren ura oftal-

mologikoa dela. Lakoizketak “luisalea” aipatzen du, ez du zehazten alea edo fruitua den edo landarea, eta Manuel Larramendiren 1745eko hiztegi hirueledunetik hartzen duela dio. “Alkakarate” esaten diote Girgillaon.

Politak dira baita ere landare honi buruz Javier Irigarai Imazek egiten dituen aipamenak bere 1976ko *Estado actual de la onomástica botánica en Navarra* (II) Gesalazko bailarari buruzko idatzian. Jasotako izen bitxi bi: Irurren “kazkaratxe” eta Bidaurren eta Arginanon “la justizia de Arzoz”. Itxuraz Arzozko justizia gogorra zen eta, arkakaratsak bere arantza okerrekin bezala helduz gero, askatzen zaila. Kimu berriak ere jan egiten zirela dio eta bailara hartako izenak aipatzen ditu: mataberri, pintxigal, matatxine, panpano eta matagoxa.

Izena gorabehera, jan orain kimu berriak eta uda amaieran aleak. Nik ezagutu dudana marmelada onena ale horiena da. ●

AZPIGORRI

BERTAKO AHUNTZ ARRAZAREN TXORIZOAK



GARAZI ZABALETA

David de Blasek abiatutako proiektua da Azpigorri Ahuntz Txorizoak, eta izenak argi uzten duenez, azpigorri arrazako ahuntzekin ari da lanean. “Urteetan industrian aritu nintzen lanean, baina pandemia garaian artzain eskolara joan nintzen, eta ikasketak amaitutakoan erabaki nuen ahuntz taldea erostea”, azaldu du Dimako abeltzainak. Dioenez, hasierako asmoa ez zen abereak haragitarako erabiltzea. “Ahuntzekin mendia garbitzeko proiektu pilotua aurkeztu nuen aldundian, eta bazirudien onartu zutela, baina azkenean atzera egin zuten eta proiektua kaxoi batean gelditu zen”. Ordurako, orde, bazituen 50 azpigorri ahuntz eta pabiloia, eta bide berrien bila hasi zen.

ARRAZA “BASATIA”

Euskal Herriko arraza da azpigorria, galtzeko arriskuan dagoena: “Urteetan galtzen joan den arraza da azpigorria, garai batean esnetarako eta haragitarako, bietarako erabiltzen zen familia ustiapen txikietan. Eta, batik bat, baserrien inguruko sasitzak garbitzeko”, esan du de Blasek. Ezaugarriei zera azaldu du: “Azpigorria ez da berez esnea ekoizteko arraza aproposa, eta horregatik, normalean ez du arazorik izaten errapeetan”. Horrez gain, hemengo klimatologiara egina dago, baina maneia beste arraza batzuekin baino zailxegoa dela dio abeltzainak: “Beste ahuntza arraza batzuk baino basatiagoa da azpigorria, udaberri eta udan artzaintza orduak goxoak izaten dira, baina negua gogorra da”. Kanpoan izaten ditu ahuntzak urte osoan de Blasek, eta erdi-urten dauden garaian soilik eramaten ditu pabiloira.

Artzaintza tradizionala egiten du de Blasek, baina, berriki, GPS bidezko lepo-



koak jarri dizkie animaliei, artzain elektriko birtual bidez funtzionatzen dutenak. “Ordu gutxiago sartu behar ditut horri esker, baina lanak hor darrai, maneia estentsiboa egiten baitut, kanpokoa”. Gaixotasunen eta bestelako beharren aurrean, produktu naturalak erabiltzen saiatzen da abeltzaina, eta antibiotikoak eta kimimoak muturreko kasuetan soilik ematen dizkie.

TXORIZOA ETA HESTEBETEAK


Erdi kasualitatez eta halabeharrez hasi zen Dimako abeltzaina ahuntz txorizoa ekoizten: “Zahartuak nituen zenbait ahuntz hiltegi bidali nituen duela hiru urte, txorizoa egin nuen haragiarekin eta azoka batera joan nintzen. Guztia saldu nuen azoka bakarrean”. Horrela, txorizo ekoizpenari ekitea erabaki zuen bete-betean. Gaur egun, Urduñako Belardi

hiltegi eta transformazio gunean egiten ditu eraldaketak, eta batik bat azoketan saltzen du produktua. Azken aldian, bestelako hestebeteak ere egiten ari da, proba moduan: “Zezinarekin probak egin nituen baina ez nintzen oso gustura gelditu, eta orain odolkiak egitea da nire asmoa”. Izan ere, zerrikirik jaten ez duten herritarrek, tartean musulman askok, interesa azaldu dute bere produktuekiko.

40 urteak pasata sartu zen abeltzaintza proiektuan de Blas, eta berea bezalako proiektuek batere laguntzarik eta babesik ez jasotzea salatu du. “Animatuko nituzke gazteak sektorean sartzera, baina esanen nieke oso oso ongi begiratzeko Nekazaritza Laneko Unitatea lortzeko betebeharrak, artzain eskolatik ateratako askok izan baititugu ezustekoak horrekin, eta asko ekonomikoki egorea zailean gelditu dira”, amaitu du. ●



Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:



1. Irakasle gizonezko. | Ahuntzaren ar. **2.** Zatoz, zatozte. | Hazitarako txerri **3.** Nigerko hiriburuko biztanle. **4.** Istinga. **5.** Larruazaleko gaixotasun, batez ere, nerabezaroan gertatzen dena. | Helbururik gabe, nora gabe. **6.** Asiako estatua. | Zakar pila. **7.** Sustraietatik. | Armadako kide. **8.** Sei zati berdinetako bat. | Kanonen arabera.

GOITIK BEHERA:

1. Jatetxe baten eskaintza osatzen duten jakien zerrenda. | Dozena erdi (alderantziz). **2.** Jardun, eragon. | Kolore beltzaxka. **3.** Elkarre batean agiriak idazteko egitekoa duena. **4.** Haserrekor. **5.** Nire. | Infusio bizigarri. **6.** Okelaren zaina (alderantziz). | Hitz ematea. **7.** Dotoreak, lirainak. **8.** Aupats, poker. **9.** Norbait erortzeko zorian dagoenean esaten den hitza. | Gipuzkoako herria. **10.** Noren atzizkia. | Erraz jasotzen dena. **11.** Argazkiko mendia, Izarraitz mendilerroko tontor nagusia. **12.** Nor. **13.** Arte (neologismoa). **14.** Portua (alderantziz). **15.** Ugari.

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERA DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Aurpegia, begitartea
Geldialdi
Zati txiki
Lehengusua
Ikasketak egin
Zumitzezko ontzi
Garai egoki
Sorbalda, bizkarra
Irrika, grina
Oilasko zikiratu
Ipurdiak
Landa, at
Ez garden

MUSUA

OPAKU

Sudokua

ERRAZA

	1	2					7	
	4			3	9	2	6	5
5	9	3	2		6	8		1
	2	9	4		1	5	8	3
4			3	8				2
	5	8	9	2		4		6
			7			1		4
1	7			4			3	
	3		5	1	8			

ZAILA

	6	3		1			7	
8	5		2		6			9
							3	6
	8	6						
			5					2
			6	8			5	7
				5			4	1
4	7	1		2				
					1		2	

EBAZPENAK

HUTSA DELARIK, HANDIA

ATSOZITZA

OPAKU
KANPO
POPAK
KAPOI
PASIO
SAINA
SASOI
SASKI
IKASI
KUSIA
PUSKA
PAUSU
MUSUA

ANAGRAMAK

ERRAZA

11. ERLO, 12. ZEIN, 13. ERTI, 14. AIKA, 15. NARO.

APAINAK, 8. KORROK, 9. ET, ARAMA, 10. REN, ARIN,

IDAZKARI, 4. SUMINKOR, 5. ENE, TE, 6. AIG, ZIN, 7.

GOITIK BEHERA: 1. MENU, IES, 2. ARI, ARRE, 3.

KANONIKO,

IRAK, ZAKARRERIA, 7. ERROTIK, MILITAR, 8. SEIREN,

3. NIAMEIARI, 4. ZINGIRA, 5. AKNE, NORAEZAN, 6.

ESKER-ESKUIN: 1. MAISU, AKER, 2. ERDU, APOTE,



Ez hil, faborez

 GORKA INTXAUSTI ARANGUREN

HIL FABOREZ FEST

TALDEAK: Lukiek, Las Sexpeares, Seggs Tape, GAL, Chuleria Joder!, Aposapo, Bayou la Batre, Borla, Türbot, Malakias MX3

NON: Ibaola Harriak, Eskuernagan.

NOIZ: ekainaren 14an.

Arabako Errioxan dago Eskuernaga, Bastidatik hamar minutu pasatxora, kotxez. Bada, herrigunetik zazpi bihurgunetara daude Ibaola Harriak. Behinola mahasti izan zena hilerri paganoa da egun; mahatsondoak, dolmen; eta uzta, kulturala. Hura dastatzera bertaratu gara musikazale saldoa, Hil Faborez Festen bigarren edizioa. Aurten go uzta anitza da oso, eta erabaki egin behar izan dut neuretzat zein emanaldi atxiki eta zuei zer begitaratu.

Aparkaleku xelebrean leku bat egin –ez baita izan *aurkitu*–, eta ardi-kaskezurrez apaindu oholtzaren ondora iritsi garenean hasi da Borla. Berrehunen bat lagun izango ginen begira, eta aho batez abestu ditugu kanta guztiak. Punkienek ere bai, eta baziren batzuk. Ezer izatekotan, itsaskorra da iruindarren popa. Hain itsaskorra ezen sinestarazi baitigu berorik ez zela hogeita hamar gradutan, eta denok zoriotsu izango ginel, *egu-*

nen batean... Gaur, menturaz.

Musikaz eta musikari buruzko elkarriketaz bete dugu arratsaldea. Giroa eta eguna ilundu direnean, Gasteizko hardcorea oholtzara, Bayou la Batre hasi da. Gitarra gordinez eta erritmo gogorrez gain *frontman* ikusgarria dauka talde honek, zentzu guztietan. Geldirik egoten ez delako, batik bat; baina bere ahotsari sekulako zukua ateratzen diolako ere bai.

Kontzertua sekulakoa iruditu zaidan arren, dena ez da izan txalogarria: lehen lerroetan egon den gizon zisgenero zenbaiten egoteko eta mugitzeko modu bortitza aldatuko nukeen. Pogoak denok ditugu gustuko. Kontzertuetako lehen lerroak denontzako espazio seguru eta atsegin izatea ere nahi dugu, haatik. Hargatik da denon ardura hori bermatzen saiatzea. Gizonona, batez ere. Bedi ikasgai geuk erabakitzen dugula zer nolako eszena eta jarrerak sustatu nahi ditugun.

Eguneko talderik bitxiena heldu da on-

dotik: Seggs Tape. Madrildar hauek abestiak *bider biko* abiaduran jotzen dituztela dirudi. *Egg-*, *rave-* eta *synth-punk* gordina. Tenpoaren markagailua sutan. Agidanez, letra batzuek umorera jotzen dute, baina gogaikarri izatea da haien kanta gehien egiteko nagusia. Asko gustatu zaidan arren, eskertu egin dut kontzertua motza izatea. Ez da erraza erritmo horretan denboran irautea.

Lotara artekoa Malakias MX3k alaitu digu, eta dantza gailendu da dolmen artean. Hala ere, egon da elkarriketa filosofikoentzako tarterik. Heriotzari buruz hausnartzen aritu gara gu, inguruak hala bultzatuta: ondorioztatu dugu gure beldurren artean behinena dela; eta pentsatu, beharbada, halako leku batean lurperatzeak arinduko lukeela gure kezka. Urtean behin, bederen, jakiteko gure eszenak bizirik dirauela. Bizi dadin opa diogu, beraz, jaialdiari. Gutxien-gutxien, gu hiltzen garen arte. ●

“ ”

Turkierak hautsi zuen nire pertsona

Mizgin Ronak

Egungo kurduerazko idazle esanguratsuenetakoa da Mizgin Ronak. Zortzi liburu ditu idatzita, bost eleberri eta hiru olerki liburu. 16 urte zituenean ihesera jo zuen, eta urte eta erdiren ondoren haren jaioterrian atxilotu zuten, Diyarbakirren. 1992an, 18 urte besterik ez zituela, betiko kartzela-zigorrrera kondenatu zuten. 30 urte igaro ditu espetxean, eta baldintzapeko askatasunean dago orain. Hizkuntza zapalduen inguruko hitzaldia eman du Bilbon; galarazita dauka politikaz hitz egitea. Kurdueraz idazten du soilik, eta publikoki ere kurdueraz hitz egiten du.

 MADDI SARASUA LASKARAI  PELLO MAUDO HERRERO / ARGIA CC-BY-SA

Unibertsitateko gaztez bete da gela, eta hasieratik eman du abisu Mizgin Ronakek: “Mendebaldeko *bestseller* bat entzutea espero baduzue, ni ez naiz horrelakorik”. Maiatzaren 15ean, hain justu ere kurdu hizkuntzaren nazioarteko egunean eman du hitzaldia Ronakek. Norbere hizkuntza inportazaien pertsonekin kurdueraz hitz egiten aritzea harentzat poza dela elkarbanatu ondoren, parean zituen gazteei adierazi die nolako ametsa litzatekeen berarentzat noizbait Kurdistanen, kurdueraz, kurdu ikasleentzako unibertsitatean hitz egiten aritzea.

Hizkuntza betidanik ardura izan zaion familia batetik dator Ronak. Haur-

tzaro zoriontsua izan zuela dio, haren hizkuntzaren zorionak inguratuta bizi izan zela, harik eta zazpi urte zituenean “beste hizkuntza etxean agertu zen arte”, arma eta fusildun gizonekin. Hormak hautsi sartu ziren, eta haren aita atxilotu zuten: “Nire hizkuntzaren zoriona amaitu zen horrela, nire haurtzaroaren zorionarekin batera; turko hizkuntzak hautsi zuen nire haurtzaroa, lapurtu zidan nire hizkuntza, nire aita, nire pertsona hautsi zuen, eta apurtuta gelditu nintzen”.

Harrezkero, eskolaz kanpo bere lagunak turkieraz hitz egiten hasi zirenean, bertatik ospa egiteko grina sartu zitzaion. Halaxe zuzendu zaie unibertsitateko

ikasle euskaldunei: “Espero dut zuek ez duzuela halako hausturarik bizi izan, ez zaizuela hizkuntza lapurtu, ez zaudetela barrutik apurtuta; garrantzi handia dauka horrek norberaren izatean”.

Turko hizkuntzaren irakaslea zen Ronaken aita, baina kurduera irakatsi zion alabari, kurduera baitzen bihotzean zeukana. Aita lanetik bota zuten, familiarekin kurdueraz hitz egiteagatik. Honela dio Ronakek: “Turko hitzak espetxea esan nahi du niretzat, zapalkuntza”. Aita espetxean egon zen, eta gero alaba ere bai, 30 urtez. Hizkuntzaren borroka espetxean ere ematen zela kontatu du. Hamar minutuz hitz egin zezaiketen familiarekin telefonoz, baina hark ez zuen familiarekin turkoz hitz egin nahi: “Turkoa izatea Polizia izatea zen niretzat, ezin nuen turkieraz hitz egin familiarekin; ama hizkuntza norberaren izaeraren parte da, gu garena da”.

Familiarekin kurdueraz hitz egitea galarazten ziotenez, protesta egin zuen Ronakek, eta zigortu egiten zuten; horrela, familiarekin hitz egin ezinik egon zen luzaroan. Baina idatzi bai: espetxetik idatzi ditu kurduerazko argitalpen esanguratsu asko.

30 urteren ondoren, espetxetik irtetean, bigarren apurketa bat bizi izan zuela aipatu du Ronakek, haren herria Turkiak nola asimilatu zuen ikusita. Asimilazioaren eta autoasimilazioaren eraginez eta ondorioez hitz egin nahi zuen turkieraz ari zitzaizkion kurduenkin: “Gure hizkuntza gure mezularia da,



gutaz eta bizitzaz hitz egiteko dugun modua, gure munduko lekua da, aberria, leihoa, izarra". Horregatik, turkieraz baino, nahiago du ingelesez edo pertsieraz hitz egin.

Haren familiak kurduerazko liburuak nola lurpean ezkutatuta edukitzen zituen azaldu du, baita haren aitak nola memorizatzen zituen liburuak ere, konfiskatuko bazizkioten ez zezan edukia gal. "Klasiko kurduak buruz genekizkien, poz handia zen hori niretzat", dio Ronakek. Haren haurtzaroa eta hizkuntza, poesia eta kantuz bizi izan zituela kontatu du, "giro horretan haztea pozezko poesia batean haztea bezalakoa da".

"ZER DA ZUENTZAT EUSKARA?"

Horixe galdetu die Ronakek ikasleei. Honelako erantzunak eman dizkiote: "Nire ama hizkuntza da, etxekoa, maiteena", "gure aiton-amonek asko borrokatu izan dute", "nik euskara etxean jaso nuen, niretzat harrotasuna da", "maite ditudanekin hitz egiten dudana hizkuntza da euskara, tristura handia ematen dit gazteleraz hitz egin beharrrak, asimilazioa esan nahi baitu", "niri pena ematen dit, nahiz eta hemen denek euskara jakin, gehienek gazteleraz hitz egiten baitugu gure artean".

Hunkituta entzun ditu hitzok Ronakek, hala aitortu du. "Berreskurapen prozesu baterako belaunaldia zarete" esan, eta jarraian seinatu du: "Hizkuntza zaharra, aberatsa eta polita dela esan bai, baina ez erabiltzea hizkuntzari kaltea egitea da, hizkuntzak ez duela balio esatea baita". Parean dauzkan gazte gehienek euskara etxean jaso ez, eta ikasketa ibilbidean jaso dutela jakitean, honela aireratu du Ronakek erantzunik jaso ez duen galdera: "Zuek zarete orduan gurasoei euskaraz irakasten diozuenak?". Haiek euskaraz hitz egiteak poztasun handia ematen diola esan die Ronakek, eta pertsona duinen adierazle dela, "euskara ikasi nahi dut, nire hurrengo poesia zuentzat izango da, bizitza, duintasuna eta poesia inspiratzen baitidazue".

Euskarazko abesti bat kantatzeko eskatu die, bukatzeko. Eta *Txoria txori* abestuz eskertu dute bertara batutakoek. Ronakek berak, publikoaren eskaerari erantzunez, kurduerazko abesti eder batekin eman dio amaiera hitzaldiari: "Hiltzen ari den dialekto batean kantatuko dizuet, dialekto asko dakizkigu, baina nahiago dut asko sufrizten ari den batean kantatu". ●



“Zaila da hizkuntza debekatu batean idaztea, baina merezi du”

PKK antolakunde armatu kurduak armak utzi eta desegin egingo dela iragarri duen astean bisitatu du Mizgin Ronakek Euskal Herria. Baldintzapeko askatasunean dago, 30 urteko espetxealdia igarota, eta erabat galarazita dauka politikaz mintzatzea. Baina literatura egitea bera, eta batez ere espetxetik eta kurdueraz idaztea, politika egitea da.

Zergatik eta zertarako idazten duzu? Zuretzat zer zentzu dauka idazteak?

Literaturan sinesten dudalako ari naiz idazten, gauzak okertzen direnean lagun gaitzakeena delako. Idazten ere ari naiz, beti irakurtzen ari naizelako; irakurle onek ezin dute tinta eta paperik gabe egon. Literatura beti izan da iparrorratza niretzat, nire aita literaturako irakaslea zenetik, nire haurtzaroko etxea liburutegia zen, eta nire lehen lagunak liburuak izan ziren. Liburuak dira iluntzen duenean ihes egin dezakegun leku bakarra. Gainera, liburuak ez dira hiltzen, eta ez gaituzte uzten: beti daude gure zain, beren ate magikoak aurrean.

Bestalde, nire haurtzaroko garai arriskutsuetan, aitak Cegerxwîn-en olerkiak buruz errezitatzen zituen, bakarrik orduan sentitzen nintzen ni zoriontsu.

Hizkuntza debekatu batean idaztea zaila da, baina merezi du. Eta ezin esan gabe utzi literatura eromena dela. Behin harrapatzen zaituenetik, ezin zara berriz hura gabe egon.

Nolakoa izan zen zure espetxeko esperientzia? Eta bertan idaztea?

Irudimena debekatuta zegoen, heriotza aske

[Mizgin Ronakek poema bat pasatu digu ingelesera itzulita, eta hona ekarri dugu euskaratuta]

Zaurituta zeudenek
bi urrats aurrera eman beharko
lituzketela
esan zuten,
bi urratsez aitzinatu ginen;
guhauren zaurien bila
genbiltzan,
elkarren zaurien bila,
gure ametsak ezkutatu genituen,
gure zauripeetan.
Irudimena debekatuta zegoen,
heriotza aske.
Bi urrats aitzinago genbiltzan,
gure zauriak elkarri ematen.
Elkarren zauriei begiratu
genienez,
gure oinazea biderkatu zen.
Sinesmena indartu genuen
gure ametsekin,
zauriekin indartu bezala.
Irudimena debekatuta zegoen,
heriotza aske,
euren legeen arabera.
Gure oroitzapenek
gure hiltzaileek baino gehiago
biziraun zuten.
Gure itxaropenak
zuekin geratu ziren.

Kartzela burdinazko eta hormigoizko hilkutxa da; ez dago ezer gehiago esateko beharrik. Ezerk ez du hegali, ezerk ez du bihotzik. Gregor Samsak [Franz Kafkaren *Metamorfosis* liburuko protagonista da] beti egiten dizu irribarre. Goizero esnatzen zara eta konturatzen zara ez zarela ezta intsektu bat ere. Zure oinek ezin zaituzte inora eraman. Zure begiek ezin dizute ezer erakutsi. Zure oroitzapenek uzten zaituzte. Ez dago ez joaterik ez etortzerik. Ez dago ez egunik, ez gaurik. Baina idazten duzunean bihotza taupaka ari zaizula sentitzen duzu, hitzak eta esanahia zurekin daudela oraindik. Hilkutxan zaudelako ez dago ez eguzkirik, ez zerurik, ez ibairik. Baina idazten duzunean, haietara hel zaitezke. Idazten duzunean, zure oroitzapenak salba ditzakezu. Hilkutxa apurtu eta bizitzari *kaixo!* esan diezaiokizu, gatibualdiaren infernutik. Baina prezioa ere badu. Irudi bakoitza zuk sortu behar duzu, eta askotan baliabideak agortu egiten dira. Zure bihotzaren kantuak isildu egiten dira, eta zure birrikak hutsik daude. Tintarik gabe geratu zara. Euri-tantak jaso nahi dituzu, baina haiek ere aspaldi joan ziren.

Zein da gaur egun Kurdistango egoera, hizkuntzari eta literaturari dagokionez?

Badaude arreta erakartzeko kanpainak, baina ez denez hezkuntza sistemaren hizkuntza, desagertzeko arriskuak bere horretan dirau; haurrek ikasi ezin duten hizkuntza batek ez du etorkizunik. Hizkuntza guztiak dira gizateriaren ondare, eta bakar batek ere ez luke hil behar. ●



LIBURUA

Arlote alprojak edo langabe arruntak?



LUR JOTA PARISEN ETA LONDRESEN

GEORGE ORWELL

IGELA, 2025

AMAIA ALVAREZ URIA

George Orwell *Abereen etxaldea* (*Animal farm*, 1945) eta 1984 (1949) eleberriengatik ezagutzen dugu, euskarara itzuliak biak. Baina horien aurretik *Down and out in Paris and London* idatzi zuen 1933an. Rafa Santxitz-Muxikak euskarara ekarri du aurten Igela argitaletxearekin: *Lur jota Parisen eta Londresen*.

Liburuko protagonista idazle eta kazetari den pertsona bat da, zeina autobiografia bat idazten aritzeaz aparte, bi hiri horietako etxegabeen eta eskaleen inguruko erreportajea prestatzen ari den.

Parisen lanik gabe geratzen denean eta gelditzen zitzaien diru apurra lapurtzen diotenean hasiko da kontaketa: zer egiten zuen aterpean lo egin ahal izateko eta zerbait jan ahal izateko. Bizirauteko

borroka horretan bera bezala dabilen gizonekin eta euren pasadizoeekin egingo du topo. Tarteka, hausnarketa egingo du eskale eta etxegabeei buruz ditugun aurreiritziak eta jokabideak desegiteko eta pobreziaaren aurrean zer egin deza-kegun proposatzeko.

Argi agertzen da liburu honetan estatus sozialaren arabera trataera jaso ohi dela jendartearen. Esaterako, Parisen plater-garbitzaile dabilenean bere lan-kideek "eskubidea" zuten berari oihuka eta irainka hitz egiteko, nahiz eta lane-tik irtetea elkarrekin kafea hartzera joan. Edota, Londresen aterpetxe batean kazetaria zela esan zuenean, bertako arduradunak bera 'jauna' zela esanez tratatu berezia eman zion.

Emakumeen absentsia oso nabarmena da. Protagonista eta bere kideak gizo-

nak dira denak, emakumeren bat agertzekotan puta bat da (dirua izatekotan sexu gosea asetzeko berarengana joko dute); ama edo emaztea da (bigarren plano batean dago, ahotsik gabe edo gar-rasi betean); eta liburuaren amaiera aldean agertzen den emakume-eskale bakarra alarguna eta antisoziala da.

Eric Arthur Blair deitzen zen idazlea, baina liburu honetan kontatzen zituenak bere senideak lotsaraziko zituelakoan erabaki zuen George Orwell ezizena sortzea, eta harekin argitaratzea. Denbora pasa da argitaratu zuenetik, eta zenbait gauza aldatu diren arren, oihartzunak datozkigu: etxebizitzaren arazoa eta okupazioaren kriminalizazioa, kontainerretako bilatzaileak, edo kaleko afari solidarioak debekatzea segurtasunaren izenean, besteak beste. ●



MUSIKA

Portu askotatik abiatuta



IKER BARANDIARAN

Askotan, guraso garenon kezka bat da ea seme-alabek gure aholku edo "txapak" aintzat hartuko dituzten, jakitun izanda, era berean, guri kontra egitea ere gizalegea dela. Bada, Aretxabaletako talde gazte honek nola-bait erantzuten dizkie bi kontu horiei, haien erara. Talde hau osatzen dutenetakoa hainbatek oso gazteak zirenean ska talde bat egin zuten askoren harridurarako. Gerora sakabanatu egin ziren, eta horietakoren bat, hain justu aita betidanik punk-rockean buru-belarri izan duena, rap, trap eta estilo urbanoetan erabat murgildu zen. Baina, halako batean, berak txikitatik ikasitakoa eta gaur egungoa uztartzeko nahia piztu zitzaion, eta berehala batu ziren aspaldian musi-

ka koordenada desberdinetan ibilitako lagunak.

721 gogor gabilta leloa daukan taldeak estreinako diskoa kaleratu du Aretxabaletako kuartelean bertan grabatutakoa, eta aurpegi horiek guztiak azaleratzen ditu modu txukun eta originalen. Bi gitarra, baxua, bateria, tronpeta, DJa eta bi abeslari, autotunea barne agertokian, eta, besteak beste, Never Surrender, Los Chikos del Maiz eta Des-Kontrol-en kamisetak soinean.

Intro intrigante batek zabalitzen du diskoa, eta jarraian dator *721 Rec*, autotune leunarekin jaio eta rockero malenkoniatsua bihurtzen den gaztelaniazko pieza, tronpetak protagonismo handia hartuta. *Momentu latzetan* danbatekoa



NORABIDE BAKARREAN

721-GOGOR GABILTA

AUTOEKOIZPENA, 2025

da, Txerrikumeak taldekoen laguntzarekin, ukitu alemaniarra daukan punk-oi! pieza gitarrero eta bizi-bizia. *Niebla y bruma* kantu lasaian Tatta-k esku hartzen du eta pop-rocka, reggaetoia eta elektronika ezkontzen dira. *Iraun borrokan-en*, Neallta Fola-ko kideekin, autotuneak, punk-folkak, gitarra indartsuek eta gaitaren melodiek bat egiten dute. *Guerreros II* da haien klasikoaren birmoldaketa, autotuneak gidatzen duena. *00-n* Iren daukate alboan eta tronpetaz aberastutako pop-rocka idatzi dute sasi-repeatua ere badena. *Bizitza pirata*-ko ontzira Axeri eta Fane igo dira punk-rock, rap eta pop entsalada egitera. Eta, azkenik, *Trampas* da reggaetoi eta trap arteko arrangura. ●

Anfibioa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Krak. Oinaren azpian. Kaka zaharra, oheratzean betaurrekoak nonahi uzteko ohitura puta hori. Eta orain hautsita. Jantzi zituen, hala ere. Kristalak txikimila puska eginda. Ez zeukan besterik. Eta horiek gabe, mundua koloretako lanbro deszifraezina bihurtu zen berarentzat. Eskuekin etxeko paretak haztatzen egin zuen aurrera, itsumandoka. Hirutan egin zuen estropezu. Pasilloko lurrean eserita, irtenbideren batean pentsatzen hasi zen. Lagunen bati edo lankideren bati dei ziezaiokeen, baina, klaro, pentsatzen hasita, ez zuen ezagutzen hainbeste dioptriadun antiojoak edukiko zituen inor. Eta gainera: nola ostia deituko zion inori, horretarako aurrena telefonoa aurkitu behar bazuen, piztu, PINa sartu eta kontaktuetan izena bilatu, hori guztia begirada ho-deitsu harekin. Deskartatuta.

Orduan gogoratu zen. Bazeuzkan beste betaurreko graduatu batzuk etxean. Ez zen oso irtenbide ortodoxoa, baina gutxienez egoera salbatuko zuen. Gelara itzuli zen etxeko iskina guztien kontra txokatzen; kiroldegiko gauzen artean haztamuka ari zela sumatu zituen, hor zeuden, Speedo markako igerilari-betaurrekoak, bera bezalako übermiopeentzat prestatuak. Oparitu egin zizkieten, ez zituen inoiz erabili; piszinako uretan latexezko txanoarekin txipli-txapla, barregarri sentitzen zen. Orain aldiz, ah, hura lasaitua: etxeak, ertz mehatxagarri eta tranpaz jositako lekua izateari utzi zion, itzuli ziren silueta definituak, denak zeukan berriz ere betiko itxura. Berak izan ezik.

Ispilu aurrean: a ze piura. Enfin, farmaziaraino bakarrik joan behar zuen horrela, han lortuko zituen urgentziazko betaurreko-betaurreko batzuk. Eta gero optikara, miope profesionalentzakoak enkargatzera. Graziosoa izango zen. Agian komikoa ere bai. Anekdotak bat, norbaiti noizbait kontatzeko modukoa –nori, ordea? Noiz?–.

Atera zen, beraz, igerileku urbanora. Jendea begira geratzen zitzaion, noski. Irribarrez, bai. Baina irribarre urduriz; izerdi hotz batekin egiten den irribarre hori. Bost axola, ez zuen jende askorik ezagutzen; horretarako joan zen hirira, ezta? Anonimotasuna: askatasuna. Nahi duzun bezala jantzi, nahi duzun lekura joan, nahi duzun dendan erosi, nahi duzunarekin oheratu, herriko konbentzio sozial txatxuetatik libre. Gero, egia esan, “nahi” guztiak “ahal”-engatik kanbiatu behar izan zituen. Eta, horixe, bazihoan, ahalik eta ibilera duinena mantenduz, piszinako betaurreko graduatuek bidea argitzen ziotela, farmaziarantz.

“Ba zazpi dioptriakorik ez daukagu. Auskalo noiz ekarriko dituzten gainera, Ormuzko itsasartetik gauza asko garraiatzen dituzte eta badakizu, azkenaldian, Ekialde Hurbila nola dagoen ikusita...”. Joder, geopolitika-lezioak hemen ere, hori besterik ez zuen falta. Esku hutsik atera zen, bere burua mada-rikatuz betaurrekoak puskatu zituelako, ez zituelako bere gauzak zaintzen, desastre hutsa zelako, bakarrik eta miserableki hilko zelako, inork ez baitzuen

berarekin egon nahi. Nola gerturatuko zitzaion ba inor, norengana eta mundu osoan igerilekuko betaurrekoak jantzita kalera atera zen pertsona bakarrarengana?

Klak. Burutik pasa zitzaion ideia hura, bat-bateko distira, dena aldatuko zuen galdera: eta bakarra ez balitz? Telefonoan bila hasi zen etxera bidean. Berehala iritsi zen Miope Anfibioren Mugimenduaren forora. Pilula gorria: hain identifikatuta sentitu zen planeta osoko jendeak web horretan kontatzen zituen bizipenekin –begirada arraroak, burlak, jazarpena, bakardadea...–, ezen pentsatu baitzuen bizi osoan barru-barruan sentitu zuen zerbaiti hitzak jar ziezazkiokeela azkenik.

Onoren gertatu zena ezagunagoa da: podcastak, topaketak, manifestazioak... Ezkerraren eta eskuinaren arteko zatiketa tradizionala gaindituz betaurrekoak auzi sozial guztien erdigunean jarri dituen iraultzak panorama politikoa hankaz gora jarri du dagoeneko. Eta berak ez dio utzi igerilekuko betaurrekoak janzteari: gauzak desberdin ikusi daitezkeela ikasi du haiei esker. ●





Kamiseta **17 €**

Erosten duzun produktu bakoitzarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diozu Mbolo Moye Doole elkarteari. Batez ere Senegaldik etorritako migratzailez osatutako Bilboko kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

 **ARGIA**

azoka.argia.eus

(+34) 943 37 15 45

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.



Poltsa **14 €**





LORATEGI BAT SOINEAN

ERAKUSKETA
2025.06.07 / 2025.09.28
SAN TELMO MUSEOA

San Telmo Museoa
Zuloaga pza. 1
20003 Donostia
www.santelmomuseoa.eus

ANTOLATZAILEA:

STM
San Telmo Museoa

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostia
kultura

 GOBIERNO
DE ESPAÑA
MINISTERIO
DE CULTURA

 MUSEO
del TRAJE
Centro de
Investigación
del Patrimonio
Etnológico

ERAKUNDE BABESLEAK:

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTU
KULTURAKO
DEPARTAMENTO DE CULTURA

 GIPUZKOA
Kultura